

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 1a / 486. zenbakia



Sagarpe elkarteak martxa estreinatuko du martxoan

OSINTXU: SANTU MARTIRIXEN FERIA BIHAR/5 • KIROLAK: TALDEENDAKO DIRULAGUNTZAK AZTERGAI/10



Gida 2002

Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz Gatzaga
Aramaio

Goiena
KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

GIDA BEHARREAN BAZAUDE...

Denden, lantegien, elkarteen
eta zerbitzuen telefono
eta helbideak, zure esku.

ETORRI BILA

Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31
Bergara: Irizar jauregia. Barrenkalea 33
Aretxabaleta: Durana 11- 2. solairua



Gida 2002

Bergara
Antzuola
Elgeta

Goiena
KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

EDO BIDALIKO DIZUGU

Deitu 943 79 21 00 telefonora eta
postaz jasoko duzu. Gida bakoitza 3,6 €.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ATREBENTZIAEZPADA/ Erosiko ziñuke automobilla merkataritza etxe baten?




LUIS UNZURRUNZAGA
60 urte

Ez dakit, baiña seguramentera ez. Kontzesionari-xuan erosita *postbenta* zerbitzua harek emoten dost, eta nik uste dot Eroskin edo Korte Inglesian erosita baiño hobia izango dala.



PAKITA ARANBERRI
49 urte

Lehenengo eta behin saldu osteko zerbitzua zelan dagon enterauko nitzake. Niretako oso inportantia da hori. Eta saldu osteko zerbitzua ona bada, erosiko neuke; iñungo duda barik.



ENRIQUE NIETO
74 urte

Ez dakit. Bere alde on eta txarrak dauzka. Eta nik uste dot alde on eta txar horrek begiratuta, oin artekuakin gelditzen naizela, hau da, kontzesionari-xuan erosiko neuke.




INES ITURRIKASTILLO
36 urte

Igoal ez neuke holako merkataritza etxe baten erosiko. Batez be zerbitzuagaittik. Gero, konponketak bihar dienian... Konfiantza haundixagua emoten doste kontzesionari-xuek.



JAVIER GAZTAÑAGA
30 urte

Ez dakit ze esan. Baiña igonal erosiko neuke. Azken baten danetik ikusteko aukeria egongo da, marka gehixenak. Eta konparatzeko aukeria emongo dost horrek.



JOSUNE ENA
29 urte

Erosiko neuke. Saldu osteko zerbitzua berdiña bada eta gaiñera pixka bat merkiagua lortzeko aukeria egon ezker, duda barik erosiko neuke kotxia holako toki baten.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ETXeko LANAK TRUKATZEKO IKASTAROA Joan den astean amaitu zen Udalak antolatutako etxeko lanak gizon-zkoen eta emakumezkoen artean trukatzeko ikastaroa. Hogeita zortzi gizon-emakumek hartu dute parte, eta horiek guztiek egindako lana txalagarria iruditu zaigu. Baita Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak horrelako ekimenak aurrera eramatea ere./M. B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /10

KULTURA /12

Osintxun Santu Martirixak

Egun hori ospatzeko feria eta argazki erakusketak egingo dituzte bihar, zapatua, Osintxun.

Azken partidua etxean

Senior eskubaloi taldeak etxeko azken partidua izango du domekan Urnietaren aurka, etxean.

Sagarpe elkarte

Alfredo González Chirlaquek konposatutako martxa estreintuko du Sagarpek martxoan.

ASTEKODATUA

55.293

KIROL TALDEEK IAZ ESKURATU ZUTEN EURO KOPURUA

Horixe da herriko kirol taldeek iaz Udalarengandik jaso zuten euro kopurua. BKEko futbol saila da fitxa gehien duen taldea, eta, ondorioz, hark jaso zuen dirulaguntza handiena.

BESTEKEESANA

“ Ez beti, baina kapitalismoaren garapenarekin eta iraultza industrialarekin, eta

zer esanik ez bioteknologiarekin, hiritarrok joera izan dugu pentsatzeko natura dela doan edo, behintzat, oso merke eskura beharko genukeen zer bait. Soroko lana ez-lana izango litzateke, biologia soila, baliabide naturala, gauza errepikakorra. Letxua berez jaioko balitz bezala, eta lurretik hartu beste "lanik" ez balezgo bezala. Ez da egia? Paradoxikoki, eraikuntza kultural horrekin naturari itzuli egiten zaio lapurtutako estatus ergo naturala, baina iteratibo eta aspertu antzekoa (mihiarekin klask egin).

JON ODRIUZOLA
Gara/02-02-26

BERAIEKIDIOE/ Mila Elortza



Donostiara AHTren aurka

AHT eta proiektu txiki-tzaileak gelditzeko bideak badira. Borroka eta sormena, jendea eta martxa beharko ditugu. Lurralde desorekak zuzendu beharko dira eta hirigintzako merkatu espekulatzaileak eragiten duen hirien hazkunderari mugak jarri. Globalizazioak berekin ekarri duen merkantzien garraioaren masifikazio aberrantea gutxitu. Irizpide sozialek, kulturek eta ekologikoeak aurrea hartu beharko diote gaur egunean nagusi den fundamentalismo ekonomiko neoliberalari, gizartea egiazki elkarbizitza-eremu gisa berreskuratzeko, eta ez negozioetarako esparru gisa. Gizarteak ingurumenarekin dituen harremanak adiskidetu eta errotik aldatu beharko dira, esplotazioan baino elkarrekotasunean oinarritzeko, helburua ez baita jada natura dominatzea, harmonian egokitzea baizik.

AHTren auziaren egungo egoerari dagokionean, oposizio-

ak indar handiak bildu beharko ditu instituzioetatik bultzatzen ari den inposizioari aurre egiteko eta abian jarri gero ingurumen, gizarte, lurralde eta ekonomia aldetik kalte larriak eragingo litzuzkeen proiektu hau geldiarazteko.

Mobilizazioari bultzada indartsu bat eman behar diogu, are gehiago "Euskal Y"-aren aprobazio fasea amaituta Eusko Jaurlaritzak AHTren makineria astuna berehala abian jarri nahi duen honetan, afektaturiko herrien eta jendearen iritziaz inolako

axolarik izan ez duen bitartean. Horrekin, zulo gero eta sakonagoa zabaltzen ari da azpiegitura erraldoiak sustatzen dituzten indar ekonomiko-politikoena eta halako proiektuak onartezintzat jotzen ditugun jende askoren artean.

Hori denagatik, jende guztia deitzen dugu igandean Donostian ospatuko den AHTren eta Proiektu Txiki-tzaileen Aurkako Egunean parte hartzera.

“AHT gelditzeko bideak badira. Borroka eta sormena, jendea eta martxa beharko ditugu”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 1
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ZAPATUA, 2
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

DOMEKA, 3
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

ASTELEHENA, 4
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

MARTITZENA, 5
PUY, Barrenkale 25. 943 76 16 87

EGUAZTENA, 6
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUENA, 7
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (banda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina Domekak: 10:30.
Domekak: **Labegarieta**
11:30, 13:00. Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00. **San Lorentzo**
Lanegunak: 19:15. Zapatuak:
San Pedro 20:00.
Domekak: **Angiozar**
09:30, 12:30. Domekak:
Zapatuak eta 11:30.
lanegunak: 19:00. **Moja**
Sierbak Zaharrak
Lanegunak: 19:30. Lanegunak: 8:00.
Osintxu **Mizpirualde**
Domekak: 12:30. Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00. Zapatuak: 17:30.
Elosu **Antzuola**
Domekak: 10:30. Domekak:
Ubera 09:00, 11:30.
Domekak: Zapatuak eta
10:30. lanegunak: 19:30.
San Juan **Uzarraga**
Domekak: 11:00. Domekak: 10:00.
Elorregi

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Euskararentzat justizia
plataformaren prentsaurrea
egunean, martxoak 7,
Kultura Etxean, 19:00etan.

SAGAROTEGIRA IRTEERA
Jardunek eta Soraluzeko
Pil-Pileanek, martxoaren
8an Hernaniko Otsua-Enea
sagardotegira afaltzera
joateko irteera antolatuta
dute. Trikitilariak eta
bertsolariak ere izango
dira. Jarduneko bazkideek
26 euro, eta gainerakoek 29
euro ordaindu beharko
dituzte. Argibideak Jardun
elkartean (943 76 08 19).

"MEMIN" GOGORATUZ
Iñigo Martinez "Memin"
zenaren oroimenezko
mendi irteera Irukerutzeta-
ra zapatuan, hilak 2. Irteera
9:30ean San Martin plaza-
tik. Haren lagunek, parte
hartzeko deia egin dute.

HAIZEPEREN BATZARRA
San Antonioko Haizepe
elkartearen urteko batzarra
izango da zapatuan, martxo-
ak 2, 17:00etan.

EHIZA JARDUNALDIA
Martxoaren 10ean herriko
ehiztariei zuzendutako
ehiza jardunaldia jokatu
da Zambranako ehiza-
barrutian. Izena ematea (40
euro) Eusebio II eta Ami-
lotx tabernetan.

JARDUNENAGENDA

ASTEBUKAERAKO JARDUERAK
Zapatu arratsaldean,
Kartzelan, herri kirolak
gaztetxoendako eta dome-
kan, aintzinako jolasak.

ONDO ESAN BEHARKO
Kultur Errotaren barruan,
domekan, hilak 3, Ramon
Agirrereren *Ondo esan*
beharko ikuskizuna Pol-
Polen, 19:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40,
12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20,
18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Ami-
llaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze
aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-
dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gaine-
an, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labe-
garaieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40,
11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30
(Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40,
18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiau-
rre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi),
San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-
tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Taun-Taun
show lanaren
aurkezpena
Zabalotegin

Taun-Taun talde bergararrak
Taun-Taun show lana aurkeztu
zuen 1992ko martxoaren lein
Zabalotegiko aretoan. Antzerki
emanaldietarako berritu zuen
Udalak aretoa, eta Taun-Taunen
laugarren antzerki lanaren
aurre-estreinua ikusteko, aretoa
jendez gainezka izan zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ufala"



Uholdea.
-Agostuko ufalak kalte
aundixak ein zittuan.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA **5 °C**
Eguaztena, 20

MAXIMOA **16 °C**
Martitzena, 26

ASTEKO **29,4 L**
EURIA (l/m²)

| | Max. | Min. | Euria |
|-----------------|-------|------|----------|
| Eguaztena, 20 | 11 °C | 5 °C | 18 l/m² |
| Eguena, 21 | 11 °C | 5 °C | 3,5 l/m² |
| Egubakoitza, 22 | 11 °C | 8 °C | 4,4 l/m² |
| Zapatua, 23 | 12 °C | 9 °C | 2,9 l/m² |
| Domeka, 24 | 13 °C | 8 °C | 0,6 l/m² |
| Astelehena, 25 | 16 °C | 5 °C | - l/m² |
| Martitzena, 26 | 16 °C | 9 °C | - l/m² |

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

'A MI MADRE LE GUSTAN LAS MUJERES'

ZUZENDARIAK: DANIELA FEJERMAN ETA INES
PARIS. **AKTOREAK:** ROSA MARIA SARDA, LEONOR
WATLING, MARIA PUJALTE.

HARIA. Banadu ondoren, *Sofiak*
bikotekidea topatu duela esango
die bere hiru alabei. Ustekabeko
sorpresa hartuko dute alabek...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen.
Zapatuan 19:30ean eta 22:30ean,
domekan 19:30ean eta 22:15ean,
eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'HORA PUNTA 2'

ZUZENDARIA: BRETT RATNER. **AKTOREAK:**
JACKIE CHAN, CHRIS TUCKER.

HARIA. Lehenbiziko zatiaren arra-
kastari eutsi nahirik, nagusiki
gaztetxoei zuzendutako akziozko
filma. Jackie Chan eta Chris
Tucker aktoreen arteko nor-
gehiagoka: ahozabala bata eta
borroka-arteetan Ekialde Urru-
neko gizonik trebeenetako bat
bestea.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen.
Egubakoitzean 22:30ean, zapa-
tuan eta domekan 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'LA ZONA GRIS'

ZUZENDARIA: TIM BLAKE NELSON. **AKTO-
REAK:** HARVEY KEITEL, STEVE BUSCEMI,
MIRA SORVINO.

HARIA. Tim Blake Nelson aktore-
ak (*O brother*) zuzendutako film
honek harrera ona izan zuen
Zinemaldian. Benetako gertaka-
rietan oinarrituta, Bigarren
Mundu Gerrako holokaustoan
naziek, euren adiskideak akaba-
tzera behartzen zituzten juduta-
rren gorabeherak kontatzen dira.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen.
Eguenean, martxoak 7, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

ETXEPARE-BILINTX
LIBRYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

FERIA/ Erakusketarekin batera nekazari produktuen eta artisauen hamazortzi postu inguru egongo dira plazan eta pilotalekuan

Bihar, Santu Martirixen Ferian, Osintxuko baserrien argazki erakusketa egingo dute

MONIKA BELASTEGI

Bihar, martxoak 2, Santu Martirixen Feria egingo dute Osintxun. Goiz osoan barrena, bertako artisauen eta nekazaritza produktuen postuak egongo dira, hemezortzi bat, gutxi gorabehera. Horrez gain, Osintxuko baserrien argazki erakusketa ere egingo dute.

Santu Martirixen eguna azken urteetan gainbeheran zebilen arren, hainbat herritarrek egun hori berpiztea erabaki zuten duela bi urte. Horrela, artisautza eta nekazaritza feria antolatu zuten, baita baserriko antzinako tresnen eta tramankuluen erakusketa ere. Hori guztia duela bi urte izan zen, eta iaz, antolaketa berberari ekin zioten.

Aurten, baina, aldaketa garrantzitsua izango du Santu Martirixen eguneko egitarauak: baserriko antzinako tresnen erakusketaren ordez Osintxuko baserrien argazki erakusketa antolatu dute. Berrogei argazki inguruk osatzen dute erakusketa. Hasiera bateko asmoa zen auzoko baserri bakoitzaren historia batu eta erakustea. Hala ere, datu historiko askorik ez ei dago antolatzaileen esanetan, eta baserrien argazkiek eta izandako jabeen izenek osatuko dute erakusketa. 10:00etatik 14:30era bitartera egongo da ikusgai erakusketa, pilotalekuan.

NEKAZARIAK ETA ARTISAUAK

Feria ere erakusketarekin batera irekiko dute, 10:00etan, eta 14:30era arte egongo da zabalik. Batetik, nekazari produktuen postuak egongo dira, zortzi postu, hain justu. Batzuek Osintxuko nekazaritza produktuak izango



Baserriko produktuen zortzi postu inguru eta artisauen beste hamar ikusi ahal izango dira Osintxuko ferian.

Feria 10:00etatik 14:30era egongo da zabalik; artisauak pilotalekuan, eta barazkiak plazan

Baserriko produktuen eta artisauen artean, hamazortzi postu egongo dira guztira

Pilotalekuko argazki erakusketan auzoko berrogei baserriak jasoko dituzte

Berrogei baserri argazkitan

Bi urtez nekazari tresnen erakusketa egin ondoren, beste erakusketa bat antolatzea erabaki dute aurten antolatzaileek. Desberdina, baina, betiere, nekazaritzarekin eta baserriarekin harremana duena. Hori horrela, Osintxuko baserri guztiak pilotalekuan sartzeko ideia otu zitzaion; eta nola sartu 40 baserri pilotaleku baten? Bada, argazkien bidez. Argazki bakoitzak testu bat du lagun. Batetik, 1657an zeukan jabearenak, eta, azkenik, baserri bakoitzak izan duen izenik zaharrena, gaur eguneko eta izenaren ahozko bertsioa.

dituzte, eta beste batzuek gozoak, gazta eta ogia. Postu horiek plazan jarriko dituzte.

Bestetik, artisauek ere egongo dira ikusgai. Hamar postu egongo dira, eta, Osintxuko artisauek gain, Angiozar, Bergara, Elgoibar eta Sorluzeko artisauen lanak ikusteko aukera ere izango da. Besteak beste, honako hauek: loreak, galtzak, egur tailak, hariak eta zeramika. Artisauek postuak pilotalekuan egongo dira ikusgai, baserrien erakusketa-rekin bat eginik.

BERTSO AFARIA

Moises Azpiazu dantza taldeko neska-mutikoen dantza saioa egingo dute 12:30ean, eta Ainhoa eta Nerea trikitilari zarauztarrek giroa alaituko dute egun osoan. Horrez gainera, taberna jarriko dute plazan eta taloak ere emaniko dituzte.

Santu Martirixen ospakizunak amaitzeko, 21:00etan, bertso afaria izango da Txuringo jate-txean. Angel Mari Peñagarikano eta Mikel Mendizabal bertsolarien hartuko dute parte.

Makina berriak inauguratu dituzte Miguel Altunan

MONIKA BELASTEGI

Joan den egubakoitzean, Miguel Altuna Institutuko tailerretako ekipamendu berria inauguratu zuten. Institutuko zuzendari Jose Mari Larrañagak ikastetxea utzi eta Eusko Jaurlaritzara doala esan zuen.

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuorde Jorge Arevalok inauguratu zuen Miguel Altuna Institutuko tailerretako ekipamendu berria. Ekitaldian Bergarako alkate Victoriano Gallastegi, Antzuolako alkate

Mireia Unamuno eta institutuko zuzendari Jose Mari Larrañaga izan ziren.

Ekipamendu berria hogeita lau makina berrik osatzen dute: tornoak, fresatzeko makinak eta artezteko makinak, besteak beste, eta 420.700 euro inguruko inbertsioa izan du (hirurogeita hamar milioi pezeta). Bergarako eta Antzuolako hogeita zortzi lantegik lagundu duten inbertsioa, hain justu ere.

Horrez guztiaz gain, ekitaldian Miguel Altunak Venezuelarekin izandako hartu-emanak gogoratu zuten. Izan ere, makina


berriei lekua egiteko kendu zituztenak Venezuelara bidali zituzten, Gines anaia arduradun duen Pablo Mandazen fundazioaren bitartez.

JOSE MARI LARRAÑAGAK INSTITUTUA UTZIKO DU

Bestalde, egubakoitzeko ekitaldian Miguel Altuna Institutuko zuzendariak, Jose Mari Larrañagak, esan zuen institutua utzi egingo duela eta Lakuara joango dela lan egitera, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordetzara, kontseilari gisa, hain zuzen ere.



Inaugurazio ekitaldiko une bat.



MONIKA BELASTEGI

Toldoak tolesgarriak izan beharko dira ezinbestean, eta gune historikoan ezin izango dira jarri.

HIRIGINTZA/ Udaltzarak astelehenean onartu zuen araudia, eta dagoeneko indarrean da

Negozioetako publizitate euskarriak jartzeko araudia

MONIKA BELASTEGI

Ordenantza bat onartu zuen udaltzarak asteleheneko osoko bilkuran. Ordenantza horren xedea da, hain justu ere, negozio lokalen fatxadetan jartzen diren errotulu, iragarki, plaka, toldo, markesina eta metalezko itxituren instalazioa arautzea.

Negozio lokalen fatxadetan jartzen diren errotulu, iragarki, plaka, toldo, markesina eta metalezko itxituren instalazioa arautzea du helburu ordenantza horrek, eta hiri lurretan eta urbanizagarriak diren sektoreetan izango du eragina. Industria guneetan, aldiz, ez.

Kontua da publiziterako erabiltzen diren modu horiek asko nabarmen direla, eta ordenantzak herriko kale, kantoi eta plazan itxura babestu nahi du. Ordenantza hori asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen Udaltzarak, EAJ-EA, Batasuna eta

PSE-EE alderdien aldeko botoa jaso ondoren. Eta osoko bilkuran onartzearekin batera indarrean sartu da.

Hori horrela izanik, horrelako publizitate gai bat jarri nahi duenak lehenik eta behin jakin behar du udal-lizentzia beharrezkoa dela. Eta beharrezkoa izango da, baita ere, lehendik daudenak berriro edo tokiz aldatu nahi izanez gero.

Hori bai, lizentzia eskuratze-ko ordenantzak dioena bete beharko du jarri nahi dugun errotulu, iragarki, plaka, toldo, markesina edo metalezko itxitura horretako bakoitzak.

GUNE HISTORIKOAN PLASTIKOZKO ERROTULU ETA IRAGARKI KARTELIK EZ

Ordenantzak jasotzen duenaren arabera, fatxadarekin paraleloan dauden errotulu eta iragarkiek ezin izango dute merkataritza solairuak etxebizitzetatik ezberdintzen den unetik gora jo. Horrez gain, erabiltzen diren material eta koloreak egokiak izan beharko

dira hiri-inguruarekin eta fatxadarekin berarekin ere bai. Bestalde, hirigune historikoan debekatuta egongo da gehienbat plastikozkoak diren kanpoko errotulu eta iragarki-kartelak jartzea. Letoia eta kobrea eta margotutako egitura metalikoak onartuko dira bakarrik.

Toldoek dagokienez, tolesgarriak izan beharko dute ezinbestean, eta behin zabaldua ez dira 2,5 metrotik behera geratuko. Gune historikoan, aldiz, ezin izango dira jarri.

Dagoeneko jarrita dauden horrelako publizitate gaietako batzuek arautegia betetzen ez badute ezin izango dira berriro, ordenantzak ezarritakoak betetzeko aldatzen ez badira.

Horrez guztiaz gainera, fatxadetan zuzenean kartelak jartzea debekatua dagoela ere jasotzen du Udaltzarak astelehenean onartutako ordenantzak; eta horrelakoetarako Udalak kale eta plazetan kokatutako iragarki taulak erabili beharko direla argitzen du.

Atzeratuta zaborrendako edukiontzia jartzeko egunak

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean hasi eta egubakoitzerako ipinita egon behar zuten, baina atzeratu egin da zaborrendako edukiontzia jartzeko epea. Mankomunitateko iturriek ez dute oraindik data berririk aurreratu.

Atzeratu egin dute edukiontzia jartzeko eguna. Joan den astelehenean (hilak 25) hasi eta martxoaren 1a bitartean 117 edukiontzia jartzekoak ziren herrian. Hala ere, data atzeratzea erabaki du Debagoieneko Mankomunitateak, Arantzazu Uribesalgotarburuaren esanetan.


Atzerapen horren arrazoia da edukiontzia jarri dituzten herrietan hainbat arazo izan direla. Oñatin, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten jarri dituzte dagoeneko zaborrendako edukiontzioak, eta, Arantzazu Uribesalgotarburuaren esan azaldu duenez,

hainbat arazo antzeman dituzte: kokapenaren gaineko arazoak, hain justu ere: zenbait kaletan edukiontzia asko jarri dituzte, beste batzuetan gutxi, edo jarritako hainbat gunetara ezin iritsi ibili dira zaborra jaso behar duten kamioiak, leku faltagatik.

Hori horrela izanik, arazoan azterketa egiteko epea beharrezkoa dela aurreratu du Uribesalgotarburuak, Bergaran edukiontzia jarri baino lehenago.

ETXKO TRASTE ZAHARRAK JASOTZEKO ZERBITZUA

Etxeko traste zaharrak jasotzeko egunak hileko lehenengo eta hirugarren martitzenak izango dira. Bilketa gauzez egingo dute, eta ondorioz, trasteak 20:00etatik 22:00etara bitartean utzi beharko dira zaborren edukiontzia ondoan. Horrez gain, abuztuan eta jaiegunetan ez da zerbitzurik izango. Hurrengo zerbitzua martxoaren 5ean izango da.



Rodamientos Eder, irudiko eraikinera

Hortxe kokatuko da, eta ez iragan astean akatsez argazkian erakutsitakoan. Bestalde, Gallastegi alkateak argitu nahi izan du, Batasuneko Garitanoren hitzen ondoren, Arau Subsidiarioek ez dutela batzen 2004rako Rodamientos Eder Osintxutik joan beharko duela. 2004an epea amaituta ere, enpresariak luza-pena eskatzeko aukera baitu, eta Arau Subsidiarioen arabera ez delako onartuko eraikin industrial horietan beste jarduerarik. Hortik, Uberako Codornices zaharrera (irudian) eramatea.



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogitartekoak
Etxeko ogia

ENKARGUAK HARTZEN DIRA

Barrenkalea 16. Tel.: 943 76 20 62

ELKARRIZKETA

THAMER BIRAWI/PALESTINAREN LAGUNAK ELKARTEKO KIDEA

“Europak ez du ezer egiten Palestinaren alde; Israeli presiorik txikiena ere ez”

MONIKA BELASTEGI

Palestinaren lagunak elkarteak Palestinaren gaineko erakusketa du egunotan kultura etxean. Thamer Birawi palestinarra elkarteko kide da eta bere herrialdearen gainean hitzaldia egin zuen martitzenean.

Zein da gaur egungo egoera?

Egoera gaur egun oso gogorra da. Tebistan ikusi eta prentsan irakur dezakezuen, palestinarrek egunero jasaten duten errepresioa izugarria da: egunero txikitzen dituzte etxeak, egunero hiltzen dituzte palestinarrak. Herri bakoitza kartzela baten modukoa da. Azken baten, herrialde osoa zatitua, bahituta. Eta errepresioaren pean dago.

Nolakoa da eguneroko bizitza?

Eguneroko bizitza ezinezkoa da. Diren eta ez diren tokietan bilatu behar dute indarra aurrera egin ahal izateko.

Egoerari buelta eman eta konponbidean jartzeko

Europako herrialdeek esku hartu beharko luketela uste duzu?

Egia esan, betidanik izan du Europak eskua Palestinan sartuta. Izan ere, gatazka hasi zen Erresuma Batuen politikagatik, eta orain europarrek ezin dute beste alde batera begiratu. Europarrek badakite, gainera, nori utzi behar zaion lurra.

Palestinarrak Europaren aldetik laguntza adierazpen bat behar dugu. Europak ez du ezer egiten gure alde, presiorik txikiena ere ez Israel konbentzitzeko bakearen bidea hartzeko. Esaterako, kolonia eta horrelako produktuak egunero ekartzen dituzte Israeldik Europarantz, eta hemen go merkatuetan saltzen dira. Europarrek badakite kolonia horiek legez kanpokoak direla, baina ez dute ezer egiten horren aurka. Hori horrela izanda, pales-



MONIKA BELASTEGI

“Eguneroko errepresioa izugarria da. Herri bakoitza kartzela bat da Palestinan”

tinarren begien aurrean Europak sinesgarritasuna galtzen du. **Gatazkaren sorburua aipatu duzu. Zein dira gatazkaren sustraiak?**

Palestinako gatazkaren erroa da Erresuma Batuak Palestina

“Israelek estatu teokratikoa nahi du izan, juduez bakarrik osatutako estatura”

okupatu izana. Okupazio garai hartan, milaka judu joan ziren Palestina aldera, eta, biolentzia erabiliz, dirua erabiliz eta presioa erabiliz, hango lurra hartu zuten.

Horrekin batera, palestinarrak euren herrialdetik kanpora

bidali zituzten; palestinarrak ugari, gainera. Eta judu haiek estatu bat eratu zuten Palestinaren lurralde ia gehiengoa hartuz.

Hori da gatazkaren oinarria, hau da, kolonizazioa, eta kolono askoren inportazioa; lehen eta gaur egun ere bai. Orain bertan israeldarrek Argentinako juduak gonbidatzen ari dira Palestinara joateko. Gainera, Palestinan etxea eta lur zatia ere ematen dizkiete.

Duela hamar urte, Errusiako juduak joan ziren Palestinara; milioitik gora errusiar. Orain argentinarrak dira. Horrekin guztiarekin, palestinarrak ezin dute euren lurraldean bizitza egin eta egoera honetan ezin izango dute etorkizuneko bizitza ere aurrera ateratu. Kontuan izan behar da, era berean, palestinarrak ugari errefuxiatuta dagoela duela berrogeita hamabost urtetik eta Israelek ez duela onartzen haiek itzultzea.

Errefuxiatuak itzultzea ezinbestekoa da gatazkak irtenbidea izateko. Errefuxiatuak Palestinara, euren lurrera, itzuli behar dira. Gainera, Palestinan guztiendako lekua dago: judu, musulman, kristau...

Hor arazo historikoarekin egingo genuke topo?

Bai. Israelek estatu teokratikoa nahi du, juduez soilik osatutako estatura, hain justu ere. Juduak aukeratutako herria dira, eta gainerakook eurak baino gutxiago gara. Horrela pentsatzen dute, eta hori *apartheid*-a da, eta ezin da onartu.

Zein irtenbide ikusten diozu gatazkari?

Uste dut irtenbidea badagoela, hau da, Palestina osoa guztiondako estatura izatea, Afrikako hegoaldean bezala. Baina horretarako *apartheid*-a, arrazismoa, deuseztatu egin behar da, eta estatu bat eratu; diskriminazio erlijiosorik eta etnikorik gabeko estatura: pertsona bat, boto bat. Bien bitartean ezin izango dugu Israelek bakea lortu.

LABUR

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren errolda

Urtero moduan, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu du Udalak.

Errolda hori 2002 urteari dagokio. Otsailaren 22an onartu zuten, eta hogeita hamar eguneko epea dago errolda horren aurkako errekursoak aurkezteko. Zerga ordaintzeko borondatezko epea otsailaren 22an bertan hasi zen eta 2002ko maiatzaren 11n itxiko dute. Hori horrela izanik, maiatzaren 13tik aurrera errekararekin eskatuko dute ordainketa.

Bihar bisita ornitologikoa Araotzera

Mendia Bizirik taldeak antolatutako beste bisitaldi gidatu bat egingo dute bihar, zapatua. Bisita Araotzera izango da, eta helburua, inguru horietako hegazti harrapari arruntak ezagutzea. Azalpenak Mikel Olanok emango ditu.

Interesa duten guztiak daude gonbidatuta. Elkarteko tokia Pol-Pol taberna aurrea izango da, 10:00etan. Irteera goizerako soilik da, eta ez dago alde zurririk izena eman beharrik.

Sokamuturra berreskuratzeko sinadura batzea

Asteburuan aurrera jarraituko du sokamuturra berreskuratzeko eta entzierroak eta zezen-plaza kentzeko taldearen sinadura batzea.

Zapatuan eta domekan, sinadurak batzeko mahaia jarriko dute San Martin plazan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Horrez gain, sinadura emateko aukera ere izango da honako toki hauetan: Arrano, Pol-Pol eta Zuhazti tabernetan eta kultura etxean.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA 943 76 13 35



Matxiategi Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



IKASLEEN HERRI KIROL JAIALDIA SEMINARIOAN

Seminarioko patioa herri kirolen gune bihurtu zen joan den eguazten goizean. Bergarako ikastetxeetako 100 bat neska-mutiko ibili ziren hantxe hainbat herri kirol praktikatzen. Hain zuzen ere, Ikastolen Elkartek bideratutako Ikaspilota egitasmoaren ekintza izan zen eguaztenekoa. Egitasmo horren helburua da bai pilota eta bai bestelako herri kirolak ere neska-mutikoei hurreratu eta ezagutaraztea. Hainbat talde ibili ziren lehia era guztietako kirolekin: batzuk sokari tiraka norgehiagoka zebiltzan bitartean, beste batzuk antxintxika ibili ziren kaskarak saskira batzen; azkenik, zakua bizkarrean hartuta ere makina bat buelta egin zuten beste batzuek. Herri kirolekin ikastetxeetako nagusitxoek ibili ziren arren, txikiak ere han izan ziren, gogokoen zuten taldeari animuak ematen. Hango oihu eta txalo zaparradak!



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

OGIZUN koop. elk. okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65


BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

BERGARARRAK MUNDUAN

JOSE DÍAZ

34 URTE / WEB PROGRAMATZAILEA / YORK-EN BIZI DA

“Hasieran urtebeterako etorri ginen York-era, eta zortzi egingo ditugu udan”

EDU MENDIBIL

Jose Díaz eta Charlotte Bergaran ezagutu zuten elkar, Charlotte ingeles eskolak ematera etorri zenean, hain justu. 1994ko uda ezkeror York hirian bizi dira (Charlotte York-ekoa da), Ingalaterrako ipar-ekialdean, Leeds-etik gertu. Josek azaldu urtebeterako etorri ginen, ingeleza hobetzeko aitzakiarekin. Lan aukera, bestalde, ez zen oso itxaropentsua Euskal Herrian orduan”. Laster zortzi urte egingo dituzte York-en, eta oso gustura daude biak: “Ingalaterra baino areago, York gustatzen zait niri. Hiri historikoa, txikia eta oso polita da, eta, era berean, hiri handi baten abantailak ere badi-tu, zerbitzu eta aisialdi eskaintza handia duelako”, dio Josek. Charlotte bere emaztea eta kafea komertzializatzen dituen konpainia bateko pertsonal burua da eta Jose web programatzailea da softwarea saltzen duen enpresa baten.

Lanetik kanpo, aisialdirako denbora laburra daukate. Hala ere, gimnasio batera joaten dira ahal dutenean. Aste bukaeretan, berriz, lagunekin afaltzera

irteteko edo zinemara joateko ohitura dute. Eguraldi ona egiten duenean, berriz, kostaldera edo mendira irteerak egiteko aprobetxatzen dute. Udan, denbora luzea pasatzen dute etxeko lorategian, lehengo urtean ortu txiki bat jarri zuten-eta bertan. Ingelesen

“Hiri historikoa, txikia eta oso polita da York, eta hiri handi baten abantailak ditu”

izaeraz zera diosku Josek: “Aniztasun etniko eta kultural handia dago, eta zaila da zehaztea. Toki guztietan bezala, benetan merezi duen jendea dago, eta horrenbeste merezi ez duena ere”.

Bergarara bizpahiru aldiz etortzen dira urtean. Familia, lagunak eta kaleko giroa sumatzen ditu Josek faltan, eta, Realzale amorratua izanik, txuri-urdinen partiduak lagun artean ikustea, tabernan. Momentuz, han jarraitzeko asmoa daukate, “baina inoiz ez da jakiten”, esaten du.



MINGAINARITIRAKA



Marisabel Oregi

LA PUERTA AL INGLES AKADEMIXAKUA

Bederatzi urte daroia ingeleko eskolak emuten La Puerta al Ingles akademixan. Oin dala bost urte, Marisabelek eta beste bi lagunek hartu zeben akamixiaren kargua.

Zela zabaltzen die ingleserako atiak? Ba, egixa esan, poliki-poliki; atia zabaltzen eta sartzen lagundu egin bihar jako jentiarri, eta bultzadaxo batzuk emun. Akademiara deittu eta “bai, esan” batekin erantzun zosten...

Normala, bestela... Pentsaizu diar egin eta ingelesez erantzuten baldin badotzue, zela gelditzen zaren.

Inglesa ia-ia derrigor ikasi biharreko hizkuntzia da. Ikasle asko eduki-ko ditzuzue, ezta?

Bai; gainera, gaur egunian, oso umetatik hasten die inglesa ikasten. Dana dala, egixa esan, ez dakit zenbat ikasle daukagun akademixan.

Ze jentek ikasten dau, gehixenbat, inglesa?

Gehixenbat, eskolako neska-mutikuak izaten die; baiña azkenaldixan enpresetako eta komertzietako gero eta jende gehixago etortzen jaku.

Lanian estresatzen bazara, nora ihes egitteko gogua sartzen jatzu?

Mendi puntaren batera, Txindoki puntara, adibidez.

Mendizalia zara, orduan?

Bai, baiña ez naiz askorik juten; bada-kizu, oin, umiekin-eta...

Superstiziosua zara?

Ba, ez, baiña horoskopua irakurtzen dot. Eta kasorik egitten jatzu?

Ez, irakurri egitten dot eta kitto.

Loterixia tokau ezkeror, ze egingo ziñuke?

Baserrixa erosiko neuke, eta gero, ze-zer sobrau ezkeror, biatjatzera jungo nitza-ke; Egiptora, adibidez.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Juan Ramon Garitano

TIBET / 1992ko abuztuan

Guretako oso herrialde erakargarria zen Tibet. Txinak inbaditutako herrialdea zen, eta, gainera, oso menditsua. Gure asmoa zen Nepal pixka bat ikusi, eta handik Tibet-era pasatzea. Era berean, trekking-a egin nahi genuen, eta Everest-eko beheko kanpamendura iritsi.

Katmandun, Nepalgo hiriburuan, hasi genuen bidaia. Nepal aldetik abiatu ginen, beheko kanpamendurako bidearen zati handia kamioiz edo autobusez egiteko aukera eskaintzen zigulako. Tibet aldetik, dena oinez egin beharko genuen.

Esan bezala, autobusez abiatu ginen Katmandutik. Kilometro mordoxka eginda, Zhangmura iritsi ginen, Nepal eta Tibet arteko mugaraino. Zhangmu 2.000 metrotik gora egongo da; eta handik Tingri-raino joan ginen, kamioiz; 5.000 bat metrora dago Tingri. Bide zoragarria da hori; labar edo akantilatu baten ertzetik igo ginen, eta beldur pixka bat ere pasatu genuen, baina zoragarria izan zen. Gero, trekking-ari ekin genion, Everest-eko kanpamenduraino. Kanpamendutik Rongbuk herriraino jatsi ginen, eta egun batzuk pasatu genituen herri hartan. Egun horietan inguruko monasterioak ikusi eta turismoa egiten ibili ginen. Txinatarrek Tibet inbaditu zutenean, monasterio asko eta asko suntsitu zituzten. Gu han egon ginenean, baina, eta turismoari begira, horietako asko berritzen ziharduten. Rongbuk-en egun batzuk pasatuta, Tibet-eko hiriburura, Lhasara, joan ginen kamioi baten.

Pena da tibetarrekin ez genuela nahi adinako hartu-emanik eduki; izan ere, txinatarren inbasioaz geroztik, ez dira inortaz fidatzen, beldurra dute eta ez dute inola ere politikaz berba egiten; nahiko itxiak dira.

AINTZANE IRIZAR



Everesteko kanpamendurako bidean herrixka mordoa ikusi zuten.

GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



Astelehenean kirol taldeek eta Udala ordezkariek udaletxean egindako bilerako irudi bat.

KIROLA

Dirulaguntzak banatzeko sistema aztertzen dira Udala eta kirol taldeak

Herriko kirol taldeei dirulaguntzak banatzeko sistema berri nahi dute

EDU MENDIBIL

Kirol taldeek jasotzen duten dirulaguntzei dagokien araudia 1993 urtekoa da, eta beraz berritzeko asmotan dira Udala eta herriko kirol taldeak. Astelehenean, udaletxean izandako bileran, kirol taldeek egindako hainbat proposamen bozkatu zituzten.

Esan bezala, prozesu luze baten ondorioz, 1993. urtean onartu zen oraindik indarrean dagoen araudia, nahiz eta 1996an hainbat aldaketa izan zituen. Hain zuzen ere, kirol taldeei dirulaguntzak banatzeko erabiltzen zen baremoa urte hartan berri aztertu zuten. Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuaren arduradunaren arabera, "orain egoki ikusi dugu araudia gaurko beharretara moldatzea, eta hori dela eta bileretan gabilta herriko taldeekin". Urtarriletik hona hiru bilera egin dituzte, astelehenean azkena. Hurrengoa martxoaren 11n egingo dute.

Asteleheneko bileran Bergara KEko eskubaloia, saskibaloia eta futbol sailak, Ariznoa gimnasia erritmikoa, Igeri Elkartea, Antxintxika Triatlói Taldea, Xake

Taldea, Beti-Busti piraguismo elkarte, Shotokan karate taldea eta Badminton taldeko ordezkariek bildu ziren Iñaki Ugartebururekin eta Xabier Zabaleta kirol zinegotziarekin. Aipatutako taldeez gain, Lagunak futbito elkarteak, Bergara KEko pilota sailak edota Lokatza Ziklismo Eskolak parte hartu izan dute aurretik egindako bileretan.

"Egoki ikusi dugu araudia gaurko beharretara moldatzea"

IÑAKI UGARTEBURU

Herriko kirol taldeek 55.293 euro inguru jaso zituzten joan zen urtean Udalaren eskutik

DESADOSTASUN TXIKI BATZUK

Kirol taldeek, orain arteko araudia, eta Gipuzkoako hainbat kirol teknikariek udal dirulaguntzak arautzeko landutako txostena aztertzei aukera izan dute eta, hortik abiatuta, euren proposamenak egin ahal izango dituzte. Esate baterako, lehen, taldekako eta banakako kirolariak bereizten zituzten dirulaguntzak emateko orduan, baina aurrerantzean lehiaketetan ari diren kirolari guztiek puntuazio bera jasoko dute. Iñaki Ugartebururen hitzetan, "taldeen arteko desadostasun txiki batzuk badaude, baina hurrengo bileran akordio batera helduko garela uste dut".

Herriko kirol taldeek 55.293 euro inguru (9.200.000 pezeta) jaso zituzten iaz Udalaren eskutik. Fitxa kopuru handiena duen taldea izanik, iaz futbol sailak jaso zuen dirulaguntza gehien: 2.336.867 pezeta. Iñaki Ugarteburuk adierazi duenez, "aurtengorako KPI igotzea proposatuko dugu, baina ez dago ezer aurreraterik, Udal aurrekontuak onartzeke daudelako oraindik". Kirol taldeek bi epetan jasotzen dituzte dirulaguntzak, lehena apiril aldean eta bigarrena abenduan.

Bergarak Gure Txokoa hartuko du zapatuan Agorrosinen

E.M.

Azken jardunaldian Oiartzuni 0-2 irabazi eta gero, Bergarako preferente futbol taldeak Gure Txokoaren aurka jokatu du zapatuan, Agorrosinen, 16:30ean. Bi taldeak sailkapenaren erdialdean dira.

Gure Txokoak galdu egin zuen etxean azken jardunaldian, Hondarribiaren aurka, 1-2. Sailkapeneko 11. tokian dira, 37 punturekin, Bergara baino hiru puntu gutxiagorekin hain justu. Bergarako merezimendu osoz irabaziz zion zapatuan Oiartzuni, Oskar Maiztegik eta Xabi Arregik sartutako golei esker. Zapatuan irabaztekoan, sailkapenean gora egiteko urrats garrantzitsua eman dezakete mahonerok.

LEHEN ERREGIONALAK GALDU

Lehen erregional mailako taldeak 1-2 galdu zuen zapatuan, Mondragon taldearen kontrako derbia. Martin Azkondok egin zuen etxekoan gola. Partidua amaitzeaz zegoela, 85. minutuan, epaileak etxekoan kontrako penalti eztabaidagarria adierazi zuen, eta Unai Azkondo atezaina kanporatu zuen jokaldi berean. Arrasatearrek ez zuten hutsik egin penalti puntutik, eta hiru puntuak eskuratu zituzten.

Bergarak azken lau partiduetan galdu ditu jarraian, eta sailkapenaren beheko aldean da. Carlos Lasa entrenatzailearen hitzetan, "datozen jardunaldietako partiduetan erabakigarriak izango dira beheko postuetatik ihes egiteko". Astebukaeran Mendaron jokatu dute, Kilimonen aurka.



Lehen erregional taldeak 1-2 galdu zuen Mondragonen aurka.

Senior eskubaloien etxeko azken partidua domekan

E.M.

Senior mailako eskubaloia taldeak Urnietaren aurka jokatu du domekan Kiroldegian, 11:30ean. Txapelkunak izateko, bergararrek, geratzen zaizkien hiru partiduetan irabazi beharko dituzte.

Aurreko jardunaldian Leitzarane eta Bergarak Andoainen jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zen, epaileak agertu ez zirelako. Ondorioz, Edu Orgaz taldeak bi partiduetan jokatu beharko ditu oraingo astebukaeran: zapatuan Andoainen jokatu dute, eta domekan Bergaran, Urnietaren aurka. Bergararrek euren esku daukate txapelketa irabaztea. Horretarako,

Leitzarani, Urnietari eta Arrasateri (datorren astean) irabazi beharko diete jarraian. Horrela izango balitz, 2. maila nazionalera igotzeko fasea jokatu luke Bergarak. Sailkapeneko lehen biak sailkatuko dira, eta Arrate, Egialde, Donibane eta Bergara borroka bizian dira bi plaza horiek eskuratzeko. Bergararrek txapelketa bikaina egiten ari dira: jokatuak 21 partiduetatik 16 irabazi, bi berdindu eta hiru besterik ez dute galdu.

ZALEEN LAGUNTZA

Edu Orgaz entrenatzailea baike da: "Hiru partiduetan irabazi nahi ditugu, inoren menpe ez egoteko, eta itxaropentsu gaude. Domekan zaleen laguntza izatea gustatuko litzaiguke".

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

| | |
|---------------------------|------|
| Amilotx-Komando Piperrak | 5-8 |
| Mongatxurak-Eri | 7-4 |
| Bar Ugarte-A Ze Flaxa | 4-10 |
| Agirrebeña-Bicip. Igartua | 3-2 |

B MULTZOA

| | |
|-------------------------|------|
| Irubide-Aterpe | 2-11 |
| THT-Artekale | 2-4 |
| Amoskibar-Bar Canalejas | 8-3 |
| Vacalouras-Txipiron | 2-3 |
| Etengabe-Bar Bedarreta | 4-11 |

C MULTZOA

| | |
|-----------------------|-----|
| Dedo Pafarru-Patxaran | 8-3 |
| Bayer-Artusamak | 3-5 |
| Argandolas-Errotagain | 2-6 |
| Timofonika-Pagomendi | 4-6 |

SAILKAPENA

A MULTZOA

| | P | J |
|---------------------------|----|----|
| 1. Mongatxurak | 43 | 18 |
| 2. A Ze Flaxa | 43 | 18 |
| 3. Bar Ugarte | 38 | 18 |
| 4. Eri | 28 | 18 |
| 5. Agirrebeña | 24 | 18 |
| 6. Komando Piperrak | 23 | 18 |
| 7. Kanpazar | 21 | 18 |
| 8. Bar Ganbara | 13 | 18 |
| 9. Amilotx | 8 | 18 |
| 10. Biciprecisión Igartua | 8 | 18 |
| 11. Torrekua | 0 | 0 |

B MULTZOA

| | P | J |
|----------------------|----|----|
| 1. Bar Bedarreta | 49 | 17 |
| 2. Bar Canalejas | 35 | 17 |
| 3. Amoskibar | 27 | 17 |
| 4. Aterpe | 27 | 17 |
| 5. Txipiron | 23 | 17 |
| 6. Vacalouras | 22 | 17 |
| 7. THT | 20 | 17 |
| 8. Irubide | 19 | 17 |
| 9. Artekale pizzeria | 15 | 17 |
| 10. Etengabe | -3 | 17 |

C MULTZOA

| | P | J |
|-----------------|----|----|
| 1. Errotagain | 43 | 15 |
| 2. Artusamak | 32 | 15 |
| 3. Dedo Pafarru | 28 | 15 |
| 4. Bayer | 25 | 15 |
| 5. Argandolas | 25 | 15 |
| 6. Pagomendi | 22 | 15 |
| 7. Ortzi | 10 | 14 |
| 8. Timofonika | 6 | 15 |
| 9. Patxaran | 6 | 15 |
| 10. Bildurbarek | 0 | 0 |

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

| |
|--|
| 9:30: Amilotx-Eri. Bar Ugarte |
| 10:30: Bar Ugarte-Bicip. Igartua. Eri |
| 16:00: Mongatxurak-Kanpazar. Pagomendi |
| 17:00: Pagomendi-Ortzi. Bayer |
| 18:00: Patxaran-Bayer. Artusamak |
| 19:00: Artusamak-Timofonika. Aterpe |
| 20:00: Vacalouras-Aterpe. Timofonika |

DOMEKAN, BARRUAN

| |
|--|
| 9:30: THT-Txipiron. Dedo Pafarru |
| 16:00: Argandolas-Ortzi. Amoskibar |
| 17:00: Amoskibar-Bar Bedarreta. Argando. |
| 18:00: Etengabe-Irubide. Bar Bedarreta |
| 19:00: K. Piperrak-Bar Ganbara. Etengabe |

DOMEKAN, KANPOAN

| |
|---|
| 10:30: Errotagain-Dedo Pafarru. Agirrebe. |
| 11:30: A Ze Flaxa-Agirrebeña. Artekale |
| 12:30: Artekale-Bar Canalejas. A Ze Flaxa |

ARGI IBILI!

PLAY-OFFETARAKO ZOZKETA MARTITZENEAN KULTURA ETXEAN

Mongatxurak, A Ze Flaxa, Bar Ugarte, Eri, Bar Bedarreta, Bar Canalejas, Amoskibar, Aterpe, Errotagain, Artusamak, Dedo Pafarru, Bayer eta Argandolas izan dira ligako play-offetarako sailkatutako taldeak. Zozketa martitzenean, martxoaren 5ean, egingo da kultura etxean, 18:00etatik aurrera.

KOPA TXAPELKETA DATORREN ASTEBUKAERAN HASIKO DA

Liga amaiztear dagoela eta, datorren astebukaeran, martxoaren 9an eta 10ean, kopa txapelketa abian jarriko da. Hori dela eta, antolaketa batzordeak partidurik ez atzeratzeko eskaera egin die talde guztiei. Kopa txapelketa kanporaketa sistema jarraituta jokatu da eta talde guztiak arituko dira lehian.

GORA ETA BEHERA

MONGATXURAK, BAR BEDARRETA ETA ERROTAGAIN

Ligako lehenbiziko fasean Mongatxurak, Bar Bedarreta eta Errotagain taldeak izan dira A, B eta C multzoko onenak, hurrenez hurren. Hirurek erraz irabazi zituzten azken jardunaldian jokaturako partidua.

BAR UGARTE ETA BAR CANALEJAS

Bar Ugarte eta A Ze Flaxaren arteko partiduan azken hauek nagusitu ziren, 4-10eko emaitzarekin. Bar Canalejasek, berriz, ustekabean galdu zuen Amoskibarren aurka (3-8). Biak ere ligako play-offetarako sailkatu dira.

GAINBEGIRADA

ESKIA

Eskiatzera joateko irteerak martxoaren 15ean eta Aste Santuan Pol-Pol taldearen eskutik

Pol-Pol Mendizale Taldeak eskiatzera joateko irteerak antolatu ditu. Alde batetik martxoaren 15etik 17ra Baqueirara joango dira eta, bestalde, Aste Santuan, martxoaren 29tik apirilaren 6ra bitartean, Alpetara, La Plangera. Argibideak Pol-Polen, 943 76 48 51 zembakian.

SASKIBALOA

Datac Gipuzkoa Basket-Lobos Cantabria partidua martxoaren 13an Kiroldegian

Donostiako Datac Gipuzkoa Basket eta ACB ligan ari den Lobos Cantabria taldeen arteko lagunarteko partidua jokatu da martxoaren 13an Bergarako Kiroldegian, 19:00etan. Sarrera doanekoa izango da. Goi mailako saskibaloia ikusteko aukera paregabea.

PILOTA

Bergara eta Aretxabaletako pilotariak aurrez aurre martitzenean Udal Pilotalekuan

Debarroko Pilota Txapelketaren barruan, Bergarako eta Aretxabaletako pilotarien arteko partidua izango dira martitzenean, martxoaren 5ean, Udal Pilotalekuan, 19:00etatik aurrera. Kadete, gazte eta senior mailako partidua jokatuko dira.

PILOTA

Profesional mailako pilota jaialdia zapatu arratsaldean Udal Pilotalekuan

Pilota jaialdia izango da Udal Pilotalekuan zapatuan, 16:30ean. Beloki II.ak eta Pinedok Arbizu eta Albizuriren kontra jokatuko dute. Azpiroz eta Bengoetxea Saralegi-Balardiren aurka arituko dira eta azken partiduan Koka-Zearra Olaizola II.a-Peñagarikanoren aurka.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Mariaren Bihotza
Ohorezko mail. kadeteak. Zapatua. 11:30. Ipintza.
Bergara-Gure Txokoa
Preferente maila. Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Bergara-Antoniano
Lehen mailako gazteak. Zapatua. 18:30. Ipintza.

ESKUBALOA

Bergara-Urnieta
Senior mutilak. Domeka. 11:30. Kiroldegia.

SASKIBALOA

Bergara-Aloña Mendi
Kadeteak. Domeka. 10:30. Mariaren Lagundia.

PILOTA

Bergara II-Ikaskirola (Infantilak)
Bergara-Usurbil (Lehen mailako kadeteak)
Aurretik Udaberriko Eskolarteko Txapelketako bi partidua izango dira.
Egubakoitza. 19:00. Udal Pilotalekua.
Bergara-Aretxabaleta
Debarroko Txapelketa
Martitzena. 19:00. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Oiartzun 0 Bergara 2 (Preferente maila)
Bergara 1 Mondragon 2 (Lehen erregionala)
Bergara 2 San Marcial 1 (Ohorezko m., gazteak)
Soraluze 3 Bergara 1 (Lehen m., gazteak)
Antiguoko 8 Bergara 2 (Ohorezko m., kadeteak)
Bergara 0 Ikasberri 1 (Bigarren m., kadeteak)
Bergara 2 Hondarribia 1 (Infantilak)

ESKUBALOA

Leitzaran 21 Bergara 16 (Gazte mutilak)
Bergara 22 Egia 22 (Kadete mutilak)

SASKIBALOA

Bergara 57 Intxaurren 63 (Senior mutilak)

PILOTA

Bidanía 18 Bergara 8 (Infantilak)

JOKOZKANPO

Iker Sanchez

TXIRRINDULARIA

Orain arte Lokatza taldean aritu da eta domekan amateur mailako lehen lasterketa izango du Atarrabian.

Zein asmo daukazu aurtengo denboraldirako?

Amateur mailan nire lehen urtea izango da, eta ahalik eta gehien ikasten saiatuko naiz. Pozik nago Urnietatet Moulinex taldean korritzeagatik. Badakit oso kategorria gogorra dela eta ahal dudana guztia ematen ahal legingo naiz.

Zein txapelketan arituko zara?

Hogei urtetik beherakoendako Lehendakari txapelketa antolatzen dute, eta batez ere hor ibiliko naiz. Denboraldi osoan 60 lasterketa inguru dira. Hasiara batean karrerak bukatzearekin konformatzen naiz. Zelako txirrindularia zara?


Terreno guztietan sufridu behar izaten da errepidean.

Osasungarria da hori?

Beste gauza batzuk ere ez dira osasungarriak baina egiten dira.

Sasoian zauden?

Justu samar nabil denboraldi hasiera izateko baina ezin naiz kexatu. Neguan ziklo-krosa eta fondoa tartekatu ditut. Denboraldia aurrera joan ahala hartzen da sasoi punturik onena.



Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09



943 76 20 61
BERGARA

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



Sagarpe sortu zutenean, 1948. urtean, 53 bazkide ziren, gaur egun, berriz, 126.

MONIKA BELASTEGI

Alfredo Gonzalez Chirlaquek egin du eta elkartearen izen bera dauka martxak, *Sagarpe*

Sagarpe elkarteak martxa estreinatuko du martxoan

MONIKA BELASTEGI

Sagarpe elkarteak martxa estreinatuko du martxoaren 10ean. Alfredo Gonzalez Chirlaque Udal Musika Bandako eta Orkestrako zuzendariak konposatu du. Bi atal ditu, eta lehenengoa, Boni Laskurain txistulariak duela 50 urte egin-dako minuetean oinarritu da.

Sagarpe elkarteak, eta martxak ere Sagarpe izena izango du. Alfredo Gonzalez Chirlaquek egin du elkartearen kideen eskariz, eta martxoaren 10ean estreinatuko dute. Bandak Udal pilotalekuan egingo duen hileroko kontzertuan.

Martxa propiorik ez izatean hutsunea nabaritzen zuten elkartearen kideek Joxe Arrieta presidentearen esanetan. Kontuan izanda, gainera, herriko ia elkarte guztiek badutela euren martxa propioa, eta bakoitzak bere bandera duen bezala, musika ere, kasu honetan martxa, elkartearen identifikatzeko helburuarekin daukatela.

Martxa horien sorburua San Martingo danborrada izan zen, eta bultzatzailea Umore Ona elkarteak, hori izan baitzen danborradaren sortzaileetako bat, eta danborradarako martxa egin zuen lehenengoa. Umore Ona elkartearen martxa Miguel Gonzalez Bastidak egin zuen. Ondoren, gainerako elkarteetako martxak etorri ziren; datorren martxoaren 10ean Udal Musika Bandak estreinatuko duen Sagarpe elkarteak bezalaxe.

ARTEKALETIK BARRENKALERA

Sagarpek 54 urteko antzinatasuna du. Gaur egun Barrenkalen dagoen arren, lehen kokalekua Artekalen izan zuen, bost urtez. Barrenkaleko egoitza inauguratu zutenean, Bonifazio Laskurainek minuetak konposatu zuen elkartearentzat, Alfredo Gonzalez Chirlaquek martxa egiteko oinarri hartu duena, hain justu. Oraingoz doinua besterik ez du, baina hitzak jartzeko asmoa dute la aurreratu du Joxe Arrietak.

Minuetetik martxara

Duela 49 urte Boni Laskurain txistulariak minuetak egin eta eskaini zion Sagarpe elkarteari. Minuet hura Txistulari Bandarako prestatuta zegoen. Alfredo Gonzalez Chirlaque minuet hartan oinarritu da, neurri batean, *Sagarpe* martxa egiteko. Martxak bi zati ditu: lehenengoa da, hain justu, Boni Laskurainen lanean oinarritzen dena. Gonzalez Chirlaquek minuetaren atalak erabili eta biribilketa erritmoan jarri ditu. Bigarren zatia, berriz, berria da. Bestalde, minuetak ez bezala, martxa, bandarako instrumentatuta dago.

Sor Juana Ines de la Cruz omenduko dute gaur Udalean

MONIKA BELASTEGI

Udalak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak Sor Juana Ines de la Cruz idazlea oroitu eta omentzeko ekitaldia egingo dute gaur, osoko bilkuren aretoan, haren jaiotzaren 350. urteurrena dela eta.

Sor Juana Ines de la Cruz, Juana de Asbaje, 1651. urtean jaio zen – 1648. urtean jaio zela ere uste du hainbatek –, Mexikoko San Miguel de Nepantla herrian. Hala ere, badu loturarik Bergararekin; haren aita, Pedro Manuel de Asbaje, bergararra zen.

Gure artean oso ezaguna ez den arren, Sor Juana Ines de la Cruzek tartetxoa egin zuen Mexikoko historian. Batetik, idazlea izan zelako, emakumezko eskolatuak egotea batera arrunta ez zen garaian –unibertsitateara joan ahal izateko gizonetzko jantzi behar izan zuen–; eta, bestetik, haren idatziek mirespen handia sortu dutelako aztertzaileen artean.

Bere literatura lana zabala da, eta prosa eta bertsoa landu zituen. Obra hori guztia hiru banatan da: *Obras poéticas menores*, *Obras teatrales* eta *Escritos en prosa*. Lehenengoak soneto ugari batzen ditu, eta baita erromantzeak eta Gabon kantak ere,

besteak beste. Gabon kanta horietan, beste hizkuntza batzuetan idatzitako koplak tartekatzen zituen; euskarazkoak ere bai.

Hamasei urte zituela moja sartu zen Sor Juana Ines de la Cruz, eta hogeita zortzi urte geroago hil zen Mexikon hedatu zen izurritearen ondorioz.

KOKAPEN HISTORIKOA ETA POESIA

Iazko abenduaren 12an 350 urte bete ziren Sor Juana Ines de la Cruz jaio zela. Hori dela eta, Udalak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak serora oroitu eta omentzeko ekitaldia egingo dute gaur, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Ekitaldian Victoriano Gallas-tegi Bergarako alkateak egingo ditu sarrerako hitzak. Ondoren, beste lau hizlari ere izango dira: Emilio Mugika Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen (EAE) Bizkaiko presidentek Sor Juana Ines de la Cruzen Bergarako jatorriaz hitz egingo du; Jose Luis Munoak, EAEko kideak, zientzia Sor Juana Ines de la Cruzengan izango du hizpide; Jose Maria Urkia EAEko presidentek Sor Juanaren gaixotasunaz eta heriotzaz jardungo du, eta, azkenik ekitaldiari amaiera emateko, Jose Maria Aycart eta Pilar Barba EAEko kideek Sor Juanaren poesiak errezipitatu dituzte.



Irudian Juana de Asbaje, Sor Juana Ines de la Cruz.

KULTURAPILULAK

Mendekoste jaietarako kartel lehiaketa martxan jarri du Udaleko Jai Batzordeak

Udaleko Jai Batzordeak Mendekoste jaietako egitarauaren azalera kartel lehiaketa antolatu du. Edonork har dezake parte lehiaketan. Kartel bakoitzaren neurriak 60x42 zentimetrokoa izan behar du, eta teknika eta kolore libreak izango dira. Hala ere, derri-gorrezko bi testu izan beharko ditu: *Pentekoste Jaiak Bergaran*, eta 2002.

Lana aurkezteko epea martxoaren 20an bukatuko da, 13:00etan, eta lanok Kultura Etxean utzi beharko dira. Epaimahaiari dagokionez, Jarduerak, Kultura taldeak, Jaiak eta Gazteria batzordeak izendatuko du, eta batzordeko kideen eta Beart elkartearen artean osatuko da. Irabazleak 601 euro (100.000 pezeta) jasoko ditu. Hala ere, saria eman gabe ere gera daiteke, epaimahaiak hala erabakiko balu.

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTE ERAKUNDEA

EGUAZTENEAN, FILM EMANALDIA GAZTETXEAN

Astero moduan, eguazten gauean, 22:00etan, film bat eskainiko dute gaztetxeke areto nagusian, Kartzela Zaharrean, hain zuzen ere. *Ciudadano Kane* filma emango dute oraingo astean. Gogora ezazue eguazteneko film bera ikusteko aukera daukazuela domeka arratsaldeetan ere, 18:00etan, gaztetxeke aretoan bertan. Bide batez, esan behar da konponketa ugari egin dituztela gaztetxean azkenaldi honetan, eta gaztetxe berria zelan geratu den ikusteko aukera ere badaukazuela. Animo, bada, eta denok zinemara!

KUADRILLATEGIREKIN, ESKULANAK

Joan den astean hasitako arekin jarraituko dute bihar, zapatua, Kuadrillategikoek. Eskulan tailerra izango dute bihar ere, eta aurreko astean moduan, ispiluak zelan margotzen diren ikasteko aukera izango dute. Hitzordua, beti bezala, Zabalotegin, Udal Euskaltegiaren egoitzan, 15:30ean.

GAZTE BERGARARRAK GOSE GREBAN

Iruñean gose greban dagoen gazte taldeari euren elkartasuna erakusteko asmoz, beste lau taldek ekin zioten gose grebari, Donostian, Gasteizen, Bilbon eta Baionan. Donostiako taldean hiru gazte bergarrek hasi zuten gose greba joan den domekan. Hiru gazteotatik, baina, bik bertan behera laga behar izan dute, horietako bat gaixotu egin delako. Gauzak horrela, batek segitzen du baraualdian.

Euskadiko Gaztediak badu bere webgunea

AINTZANE IRIZAR

Egun hauetan, Euskadiko Gaztedia Kontseiluaren hainbat kontu entzun ditugu, Espainiako Estatuko hainbat gazteren bisita izan dugulako, EGK-k gonbidatuta. Gehiago jakin nahi duzu EGKri buruz?


Euskadiko Gaztedia Kontseiluak gonbidatuta, Estatuko hainbat gazte Euskal Herria bisitatzen izan dira. Hori dela eta, komunikabideetan EGKren gaineko hainbat kontu entzun ahal izan ditugu egunotan.

Euskadiko Gaztedia Kontseilua Euskadiko gazte erakunde eta mugimenduen topagunea dela esan genezake.

Webgune bat ere badauka erakunde horrek, eta www.egk.org helbidea dauka. Helbide horretan *Berriz Berri* EGKren buletina topatuko dugu, gazteekin eta hainbat gazte erakunderekin lotutako informazioa eskaintzen diguna. Hilabetekaria da *Berriz Berri* buletina.

Informazio iturri interesgarria izateaz gain, nor bere deialdi eta informazioak bidali eta argitaratzeko aukera ere eskaintzen digu, betiere kontuan hartuta Euskadi osorako buletina dela *Berriz Berri*.

Hamahirugarren zenbakia kalean da dagoeneko, baita sarean ere. Laster kaleratuko dute martxoko alea ere, hamalaurerrena, hain zuzen ere.



Euskadiko Gaztedia Kontseiluaren buletina sarean dago.

LOTSABARIK/ Joseba Orgaz

“Astronauta izan nahi nuen txikitant”

AINTZANE IRIZAR

Josebak 18 urte dauzka, eta Donostian ari da Telekomunikazio Ingeniaritza ikasten. Hantxe bizi da, eta, esan digunez, kanpora ikastera joatea da gurasoen kontrolpetik ihes egiteko bide onena.

• Txikitant, zer izan nahi zenuen?

Astronauta. Txikitant, ilargi betea zegoenean, ilargiari begira egoten nintzen eta hara joateko gogoa sartzen zitzaidan.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Burusoil, lanean eta konpainian onean.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasteko eta tontakeriarik ez egiteko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Nik uste dut kanpora ikastera joatea dela horretarako irtenbide onena.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Pozik bizi izateari. Denok egiten dugu ahal dugun guztia zoriontsu izateko.

• Zure bertute bat?

Hori, agian, amamari galtzea duzu onena (barreak). Dena dela, nik uste dut umila eta lagunena laguna naizela.

• Eta hutsune bat?

Bat bakarrik? Bada, bat esatearren, ez naizela batere puntuala, nahiz eta gaur esandako orduan azaldu naizen.

• Zerk amorratzen zaitu?

Hipokrisiak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Eskuak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?


Begiei.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez. Nire ustez, horretarako onena da norbera den modukoa azaltzea.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Maite duzun horrekin, hondartzan.



ADINA: 18 urte • **IKASKETAK:** Telekomunikazio ingeniariitza • **ZALETASUNAK:** Informatika eta esku-pilota • **LIBURU BAT:** “Un pacto con el diablo”, Jack Higgins-ena • **FILM BAT:** Los últimos días del Edén • **MUSIKA TALDEA:** Su Ta Gar • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Álvarez



GORKA ETXAJON '020

ELKARRIZKETA

ALBERTO URIARTE/PSIKOLOGOA

“Erretiratuei gizartean parte hartzeko aukera gehiagoren falta sumatzen dut”

EDU MENDIBIL

San Joxepe antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Alberto Uriarte psikologoa eta Donostiako San Jose zentro gerontologikoko zuzendaria izan genuen hizlari joan den egunean. Zahartze osasungarriaz egin zuen berba.

Zahartze osasungarriaren gainean jardun duzu. Zeintzuk dira hori lortzeko jarraitu beharreko urratsak?

Ez dago zahartze osasungarria neurtzerik, baina badira ohitura on batzuk lagungarri izan daitezkeenak: alde batetik, norberaren osasunaren onerako ohiturak (ariketa fisikoa, dieta orekatua eta loa, esaterako), eta, bestetik, ohitura kognitiboak direnak. Psikologian asko erabiltzen den arau baten arabera, benetan garrantzitsuak eta atsegingarriak diren gauzak aukeratzeko jakin behar da adinean aurrera egin ahala. Rubinstein pianista ospetsuak zahartzaroan ere kontzertu bikainak ematen jarraitzen zuen, eta behin baino gehiagotan galdetzen zioten ea zelan eusten zion bere mailari. Lehen 500 pieza menperatzen bazituen, zahartzaroan 50 pieza besterik ez zuela entseatzeko esaten zuen hark. Era berean, pieza ohi baino geldoago jotzen zuen, piezaren une azkarretara ondo heltzeko. Horrela, jendea ez zen oharitzen bere eskuen abilezia ez zela lehengoa. Azken baten, optimizatu egiten zuen errepertorioa. Aukeraketa egin ondoren, normalean baino gehiago entseatu behar izaten zuen, bere defizitak konpentsatzeko. Zahartzaroan horrelako zerbait egin behar da: jarduera atsegingarriak aukeratu eta horietan zentratu. Hobe da gauza pare bat ondo egitea, zeregin gehiegi hartu nahi izatea baino. Zahartzaro ona izateko, alderdi fisikoa eta soziala (hartu-emanak) zaintzea eta, ahal den



“Atsegingarriak zaizkigun gauzak aukeratzeko jakin behar dugu zahartzaroan”

neurrian, norbera bere bizitzaren jabe izatea oso garrantzitsua da, autoestima altuari eusteko.

Azkenaldian erretiratzeko adina luzatzeko eztabaida zabaldu da. Zer deritzozu?

Beti ere aktibo jarraitzea

“Giza harremanak, ariketa fisikoa eta intelektualki aktibo egotea oso garrantzitsua da”

gomendatzen da. Lanak gure denboraren antolaketa dakar, eta, ere berean, lanaren arabera hainbat gaitasun garatzen dira. Horrek pertsonarengan identitate bat sortzen du eta, hortaz, ahal izanez gero, lanean jarraitzea ona

da, aktibo jarraitzea funtsezkoa delako, bai lanean gaudela baita erretiroan ere.

Erretiroan lana utzitakoan, askoren kezka izaten da hutsune hori zelan bete.

Aurretik horretarako gertatuta egotea komeni da. Zaila da bere aisialdiaz inoiz arduratu ez den pertsona batek erretiratutakoan ohitura batzuk martxan jartzea. Hortaz, aurrez ohitura atsegingarriak garatu dituztenek hobeto egiten diote aurre erretiroari. Denbora zelan antolatu jakitea urrezko araua da. Giza harremanak, ariketa fisikoa eta intelektualki aktibo egotea oso garrantzitsua da. Badira hainbat idealekin erretiratzen diren pertsonak (deskantsatu eta hainbat gauza egitea, esaterako) eta gero horretarako aukerarik ez dutenak, edo gauzak nahi bezala ateratzen ez zaizkienak. Antsietate edo depresio arazoak sor daitezke, eta hainbat kasutan pertsona horiek laguntza behar izaten dute. Azken batean, denborak gudan eragiten dituen aldaketetara egokitu behar gara, zahartzea unibertsala eta halabeharrezkoa delako. Autoestima ona izaten eta ahal diren area guztietan gaitasunak garatzen ahalegindu behar gara.

Eta zein da, zure ustez, erretiratuek gaurko gizartean izan behar duten zeregina?

Gizartea demokratizatu egin behar da, 65 urtetik gorakoek portzentajea gero eta handiagoa delako eta, aldi berean, pertsona horiek ez dutelako merezik lukeen ordezkaritza gizartean, politikan edo enpresan. Euren baloreak aprobetxatu behar dira, eza gutza eta esperientzia aldetik emateko asko dutelako. Lanetik aparte ez da bizitza bukatzen, eta erretiratuei aukerak eman behar zaizkie. Erresidentziak eta erretiratuendako egoitzak ditugu, baina erretiratuei gizartean parte hartzeko aukera gehiago ematea faltan sumatzen dut.

LABUR

San Joxepe antolatutako mendi irteera eguaztenean

San Joxepe erretiratuen elkarrekin antolatuta, mendi irteera izango da eguaztenean, martxoaren 6an. Goizeko zortzietan irteno dira autobus geltokitik, eta ibilbidea honako hau izango da: Bergara-Zumarraga-Santa Barbara-Gorla-Bergara. Gorlan salda hartzeko tartea izango dute mendizaleek.

Bestalde, mendi irteeren egutegia zehaztuta daukate dagoeneko. Apirilaren 3an izango da hurrengoa: Bergara-Aretxabaleta-Urkulu-Bedoña-Bergara. Maiatzaren 2an eta 15ean, ekainaren 5ean eta uztailaren 3an ere mendi irteerak egingo dituzte.

San Joxepeko zuzendariak mendi irteeretan parte hartzeko gonbidapena egin nahi die bazkideei. Iaz, partaidetza handia izan zen.

Iñaxio Oliveri MUKO errektorea hizlari martitzenean

San Joxepe elkarteak antolatuta, Iñaxio Oliveri Mondrago Unibertsitateko errektoreak hitzaldia eskainiko du martitzenean, martxoaren 5ean, Miguel Altuna institutuko aretoan, 19:30ean. Besteak beste, globalizazioa, garapen teknologikoa, heziketa eta unibertsitateare zeregin gaurko gizartean aztertuko ditu Oliverik aipatutako hitzaldian. Oliverik Jabier Retegi bergararra ordezkatu zuen joan zen urtearen amaieran Mondrago Unibertsitateko errektore karguan.

Bestalde, eguenean, martxoaren 7an, Francisco Javier Leturia psikologoak *La madurez. Estrategias de afrontamiento a lo largo del ciclo vital de la persona* izenburuko hitzaldia emango du. Leturia Matia Fundazioko Giza Zerbizuetako zuzendaria da. Hitzaldia San Joxepeko egoitzako aretoan izango da, 17:30ean hasita.

**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARAIrala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA**KONDE
PANADEROKUA**Burdinate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA**DEBA
GARAIA**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIABergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37**ETXAGI
JATETXEA**AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da Basalgoko baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat urte dira gaur egun Barrenkalen dagoen Sagarpe elkarte sortu zela?

- A/ 50 urte.
- B/ 54 urte.
- C/ 24 urte.

2.

Mondragon Unibertsitateko errektorea izan da Bergaran hizlari martitzenean. Nor da?

- A/ Jabier Retegi.
- B/ Manuel Montero.
- C/ Iñaxio Oliveri.

3.

Nor zen Sor Juana Ines de la Cruz idazle mexikarraren aita?

- A/ Juan Cruz.
- B/ Cayetano de Mendoza.
- C/ Pedro Manuel de Asbaje.

BERGARAKO ZUHAITZAK

Artelatza

Quercus suber

MAITANE ARIZABALETA

Altueran 20 metro har ditzakeen hosto iraunkorreko zuhaitza. Enbor lodia du eta azala adinarekin loditu eta zartatu egiten da (kortexoa). Normalean, apirila eta maiatza bitartean loratzen da -nahiz eta batzuetan uda barruan ere loratu-, eta fruituak (ezkurak) iraila eta otsaila bitartean heltzen dira.

Euskal Herrian artelatza ederrenak Zarautz-Getariako eta Aturri ibaiaren bokaletan ikus daitezke. Hala ere, herriko lorategietan ere landatzen hasiak dira apaingarri gisa; esate baterako, Bergaran, Ibargarain.


Artelatza ugari dagoen tokietan, espezie horren azala kortxotarako aprobetxatzen da. Azken urteotan kortxoaren ordez plastikoa indarrez sartu arren, oraindik erabilera imitaezin ugari du kortxoak, batik bat, material isolatzaile, oinetako eta tapoien industrian. Ezkurak txerri aziendetarako ere erabiltzen dira.

Bestalde, artelatzen barruko azalak tanino asko duenez, larruak ontzeko oso estimatua da. Egurra gogorra, pisutsua eta iraunkorraenez, aroztegian, untzigintzan eta lanabesak egiteko erabiltzen da.

“Artelatza ugari dagoen tokietan, espezie horren azala kortxotarako aprobetxatzen da”



ARGAZKILARIA



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

KONTXI HEISentzat izan da 30 eurotako erosketa-bonoa. Zorionak Kontxiri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Goenkaleko Trinidadeko komentuan eta eskumakoa kanposantuan. Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Frias esnea

Osoa, erdigaingabetua eta gaingabetua, 2 brik

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



LOS CAZADORES

943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

LAKET

gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

GURIDI
altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

Usoa Pub

943 76 38 57
Irala 1. Bergara

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



BERGARA
Nerea Nuñez
Martxoaren 2an 10 urte.
Urte askotarako!
Maite eta gurasoak.



BERGARA
Maite Etxaniz
Martxoaren 4an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Ayala Sasieta
Martxoaren 1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Ainhoa.



BERGARA
Eneko Arizaga
Martxoaren 3an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Agirrezabal
Martxoaren 2an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maider.



BERGARA
Miren Manuel
Martxoaren 3an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ion Agiriano
Martxoaren 1ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Manex Goiti
Otsailaren 27an 7 urte.
Urte askotarako!
Ama, aita eta Ismene.



BERGARA
Laiene Mendibil
Otsailaren 22an
18 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Ander Etxezarreta
Martxoaren 7an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Eguren
Martxoaren 4an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eukene Azpeitia
Martxoaren 4an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Izar Morillas
Martxoaren 5ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Aranguren
Martxoaren 1ean
27 urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Maialen Arregi
Martxoaren 2an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Mikel Canelo Ubera
Martxoaren 1ean 4 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

BABESLEA



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

Zorionak zUri...


KARPA ETA KALEFAKZIOA
URTEBETETZE EGUNA OSPATZEKO

MENU AUKERA ZABALA
ZURE AURREKONTURA EGOKITUTA



Zorionak Eukene Labakari!

Hari egokitu zaio 'Apatxi'-ko 1. aleko lehen saria!




OTSAILAREN 1EKO APATXIKO
ERANTZUN ZUZENAK:

Apatxiko lehen aleko sariketan
Eukene Labakari irabazi zuen
lehen saria.

Eukenek *Aitor ikastolan* ordenagailua eskuratu zuen. Argazkian, sariduna Koldo Pereira Kultura zinegotziarekin (eskuman) eta Edu Mendibil BERRIGARAko zuzendariarekin.

Horrez gain, **Urko Sarobe, Enya Renner, Elene Etxaniz, Itsaso Montero eta Izar Morillas** ikasleek *Ume txikiendako kantu eta jolasak* liburuxka bana jasoko dute euren ikastetxetan.




APATXI-REN HURRENGO ALEA
APIRILAREN 12ko BERRIGARAREKIN BATERA!
Beraz, adin egon!



| | | |
|---------------------------|---|---|
| 1. Osintxu - Muiñondo | 2 | 1 |
| 2. Elorregi - Aritzeta | 2 | 2 |
| 3. Angiozar - Aldaiegia | 1 | 5 |
| 4. Azkarruntz - Goiauzoa | 0 | 1 |
| 5. Agirre - Aranerreka | 4 | 4 |
| 6. Basalgo - Labegaraieta | 5 | 0 |
| 7. San Juan - San Antonio | 3 | 3 |
| 8. Sanantonabat - Ubera | 0 | 4 |
| 9. Matxiategi - Elosu | 0 | 0 |

UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak

**Zuen
zerbitzura!**

San Juan, 1 A
BERGARA
Tel./ Faxe:
943 76 54 91



ZINEMA ETXEAN
Teknologia aurrerakoiena zure esku

Herran

SUKALDEKO ALTZARIAK
Vegasa banatzaile ofiziala
Matxiategi, 4
943 76 37 53



ELEKTRIKAKO TRESNAK
Soinua, telebista, hozgailuak...
Matxiategi, 3
943 76 12 22

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 1a / 103. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Oinezkoen babesgunea egiten ari dira Errekalden

AINTZANE IRIZAR

Oraingo astean bertan hasi dira Errekalde pareko zebrabidearen ondoan oinezkoendako babesgunea egiten. Izan ere, oinezkoen ohiko pasagunea izanik, egoera arriskutsuan zegoen zebrabide hori, eta horri irtenbidea eman nahi izan dio Diputazioak.

Udala aspaldi ari zen Antzuolatik pasatzen den errepidearen egoera arriskutsua konpon zeza eskatzen Diputazioari. Iaz, irailan, Diputazioko Errepide Saileko arduradunak Antzuolan izan ziren errepidearen egoera bertatik bertara ikusteko, eta zerbait egin beharra zegoela onartu zuten.

Orain egiten ari diren oinezkoendako babesgunea, baina, lehenengo urrats bat besterik ez da. Oraindik Diputazioak ez du errepidearen egoera hobetzeko behin betiko proiekturik egin. Horretan dihardu momentu honetan, proiektu zabalago bat egiten, hain zuzen ere. Diputazioko arduradunen esanetan, Aste Santu osterako prest egongo da proiektua. Errekaldeko



Oraingo astean bertan hasi dira oinezkoendako babesgunea egiten.

babesgunea orain egiteko arrazoia da gune hori egoera arriskutsuan zegoela, eta konponketa ahalik eta azkarren egin beharra zegoela, Diputazioaren ustez. Zera

egingo dute, zebrabidearen aldamenean irlatxo bat jarri; hau da, errepidea baino altuagoa den gune bat egin, zebrabidetik pasatzen diren oinezkoen babeserako.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Lapatzara, nekazaritza ekologikoa ezagutzera

Biolurrek, Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Gipuzkoako Elkarteak, baserri ekologikoetara bisitak egiteko egitasmoa aurkeztu zuen urtarrilean. Lapatza dugu baserri horietako bat.

Biolurrek urtarrilean egitasmo hori aurkeztu zuenetik hona, joan den eguazten arratsaldean izan zuten Lapatzakoek lehenbiziko bisitaldia. Bilboko Gabriel Aresti euskaltegiko hamaika ikasle eta irakasle izan ziren Lapatzan, barazki ekologikoak

zela lantzen dituzten ikusi eta nekazaritza ekologikoaren gainean gehiago ikastera. Edozein taldek du bisita horiek egiteko aukera. Eguna eskatzeko Lapatzara bertara deitu behar da, 943 76 63 41 zenbakira, hain zuzen ere.

Barnetegi txiki bat antolatu zuten euskara ikasten diharduten bilbotar ikasle horiek Antzuolan, Ibarre baserri turismoa. Bide batez, inguruak ikusteko aprobetxatu zuten, eta Antzuolako errota ikusten ere izan ziren.



Eguaztanean izan zuten Lapatzakoek lehenbiziko bisitaldia.

HERRITARRENHITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

Hau da langintza!

Otsailaren 20an Antzuolako kaleetan egin zituzten pintadei buruz idatzi barik geratuko nintzateke gusturen. Baina herrian ez zen beste konturik entzun aurreko astean. Gero eta nazka handiago ematen dit kontu horrek eta entzun ditudan zenbait komentariok. Edozein astakeriarentzat ere justifikazioa dago gaur egun. Kasu honetan, PP, PSOE, Aznar, Garzón, komunikabideak eta ez dakit beste zein izango diren errudunak. Akaso etorriko dira Aznar eta Garzón Antzuolan egindako pintadak ikustera... Haiek etorri arte, behintzat, ez ditzatela garbitu.

Bitartean, herritar askoren, ez denen, etxeetako paretak zikinduta. Ez dakit zertarako egin behar duen Udalak Antzuolako alde zaharra bereonertzeko plana. Arkitekto eta teknikotan horrenbeste diru gastatu... Gau batean zeharo txukundu dituzte alde zahar osoa eta berriaren zati handia.

Nork ordainduko du garbiketa? Seguru asko, Udalak. Hau da, denon artean



“Edozein astakeriarentzat dago justifikazioa”

ordainduko dugu, beste hainbat gauza bezala. Eskerrak Euskal Herriko ekonomia indartsu dagoen. Noizbait lana gutxitu eta erakundeen diru bilteta jaisten bada, errukinak gara. Baten batzuk pentsiorik gabe geratuko dira.

Baina garbiketa ordaindu edo ez, pintaden egileak zeintzuk izan diren aurkitzen saiatu behar luke norbaitek, egindako kaltea konpon dezaten. Udalaren

aldetik ere komenigarria ikusten dut gutxienez oharren bat kaleratzea, honen guztiaren gaineko jarrera azalduz. Urtean makina bat gairi buruzko mozioak onartzen dira, aldeko edo kontrako iritzia plazaratuz.

Euskal gazteen egoera oso txarra ei da. Oker ez banago, ez da askorik hobetu otsailaren 20ko pintaden ondoren. Antzuolan bertan, aldi baterako gaztetxerik gabe geratu dira, Beheko auzoko eraikuntzaren obrak irauten duten bitartean. Hark ez ote zuen merezi aipamentxo bat? Besterik ez bada ere, zelorekin itsatsitako paper zatiren bat.

LABUR

Azoka pilotalekuan egitea eskatu diote Udalari saltzaileek

Aurreko asteko Gobernu Batzordean aztertu zuten eskaera, eta ezezkoa ematea erabaki zuen Udalak. Lehen elizpean egiten zuten, eta duela urte batzuetatik hona Zurrategin egiten dute azoka.

Udalaren ezezko erantzunaren arrazoia da frontoia ez dela azoka egiteko toki egokia izan ere, frontoiko zorua berezia da eta zaindu beharrekoa, eta azokak zikinkeria sortzen du. Dena dela, saltzaileekin harremanetan jarraituko diote Udaleko arduradunek.



Pintaden gaia aztertuko du Udalak

Joan den astean, pintada ugari egin zituzten herrian ezezagun batzuek. *Gora euskal gazteria* edo *Faxismoaren aurrean gogor erantzun* leloak, besteak beste, irakur daitezke. Pintadak partikularren etxeetako paretetan egin dituzte, eta, berez, ez dagokio Udalari garbiketak egitea. Dena dela, egueneko batzordean gai hori aztertzea zen Udala./A.I.

KIROLA

Herriko pala txapelketarako izena emateko epea zabalik dago martxoaren 3ra arte

Urtero moduan, herri mailako paleta txapelketa antolatu du Olalde elkarte pilotak. Txapelketa horretan parte hartu nahi dutenek martxoaren 3ra arte, domekara arte, hain zuzen ere, dute izena emateko aukera. Juan Tomas Erostege, Josu Zabalo, Juan Simon Aristi edo Balendin Zabalorekin harremanetan jarri beharko dira izena emateko. Bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu.

Antonio Merinok Espainiako Kros Txapelketa jokatu du datorren astean Gasteizen

Martxoaren 9an eta 10ean izango dira Gasteizen Espainiako Kros Txapelketako probak. Antonio Merino atleta antzuolarrak senior mailako lasterketan hartuko du parte. Denboraldi ona egiten dihardu Merinok, eta joan den asteburuan Erandion jokatu Jorge Blancoren oroimenezko lasterketa irabazi zuen.

Neskek zapatuan jokatu dute derbia, joan den astean bertan behera laga zuten-eta

Derbia ikusteko aukera izango dugu datorren zapatuan Estalako futbol zelaian. Arratsaldeko seietan hasiko da Antzuolako eta Bergarako nesken futbol taldeen arteko norgehiagoka. Elkarren aurka jokatuko aurreko partiduan, Bergaran, 2-4 irabazi zieten Antzuolako neskek Bergarakoei. Gogora ekar dezagun Antzuola bederatzigarren dela sailkapenean, 21 punturekin, eta Bergara zortzigarren tokian dela, 25 punturekin.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 2

16:00: Antzuola-Trintxerpe B (2. erreg.)

18:00: Antzuola-Bergara (Neskak)

PILOTA

Martxoak 2 (Udaberri Saria)

17:30: Olalde-Murumendi (eskuz binaka)

Ondoren:

Olalde-Altzatarra II (paleta larraz)

Martxoak 5 (Debarroko Txapelk.)

19:00: Olalde-Eskoriatza

EMAITZAK

FUTBOLA

Gazteak B 2 Antzuola 2 (2. erreg.)

Antzuola 3 Segura 0 (1. mail. gazteak)

PILOTA

Debarroko Txapelketa

Aretxabaleta-Olalde (kadeteak) . 8-22

Aretxabaleta-Olalde (nagusiak) . 22-12

OHARRAK

ZINEMA EMANALDIA

Domeka arratsaldean, astero moduan, film bat eskainiko dute. Arratsaldeko lau eta erdietan izango da hori, eta *Oihaneko liburua* filma emango dute oraingo astean. Gogora ezazue udaletzeko osoko bilkuren aretoan izango dela emanaldia.

ZERGEN ORDAINKETA

Ibilgailuen zergak eta ur, estolderia eta zabor biltetari dagozkien zergak ordaintzeko epea gaur, martxoak 1, zabaldu dute. Ibilgailuen zergen kasuan, apirilaren 30era arte egongo da zabalik. Bestearen kasuan, berriz, apirilaren 2ra arte. Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei, osterara, betiko moduan kobratuko zaie.

BOTEPRONTOAN/ Amaia Etxaniz · Pausoka gurasoen elkarte presidentea

“Badirudi umeendako jangela egiteko baimena emango digula laster Eusko Jaurlaritzak”

Orain dela bi hilabete ezkererako Pausoka gurasoen elkarte presidentea da Amaia. Pausokaren erronka nagusien eta asmoen gainean egin dugu berba Amaiarekin.

Zer moduz lehendabiziko hilabete hauek?

Bete-betean gabiltza; urtebete daukat presidente moduan eta, gai mordo bat daukagunez mahai gainean, denera iristeko ahalik eta ondoen antolatu nahian.


Zein da zuen aurtengo erronka nagusia?

Jangela lortzeko lanean dihardugu. Orain dela bi urteko batzordeak galdetegi bat egin zuen gurasoen artean, jakiteko zein premia ikusten zituzten

herrian. Erantzun gehientsuenek jangelaren beharra erakutsi zuten. Eta, horrela, gai horri heldu genion.

Eta zelan dago gaur egun jangelaren gai hori?

Iazko batzordean bete-betean heldu genion gai horri: gurasoengana zuzendu ginen, deialdia egin genuen jakiteko zenbat ume egongo lirartekeen jangelan bazkaltzeko prest, Jaurlaritzarekin harremanetan jarri... Iaz, ekainean, eskaera ofiziala egin genuen, baina oraindik ere jangelaren kontuarekin bueltaka gabiltza. Ofizialki ez, baina ahoz baiezeko erantzuna eman digute, badagoela Antzuolan umeendako jangela egiteko aukera. Badirudi azkenean lortuko dugula.



Jangela alde batera lagata, zein beste premia dauzka Antzuolak?

Etorkizunari begira jarrita, haurtzaindegi baten beharra gero eta nabariagoa da herrian. Hiru urte bitartekoen eskolaratzea onartu berri dute baina eskolako ordutegi bera izango lukete. Guk argi ikusten dugu haurtzaindegi baten premia dagoela.

Zerbitzu falta ikusten duzue?

Bai. Gizartea aurrera doa, aldatzen ari da, eta horrek beharrian berriak sortzen ditu. Eta herri txikietan gertatzen da laguntza gutxi eta oztopo dezente dauzkagula. Hori guztia lantzen dihardugu orain, eta, era berean, Udalarekin lankidetzan ari gara.

Igor eta Txomin



Margoak
orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatuta
eta
barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko martxoaren 1a / 89. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Errepikagailua Uruburun kokatuz gero, hamar egunean GOITB ikusiko dugu

OXEL EROSTARBE


Telebista etxe guztietara zabalduko duen errepikagailua kokatzeko leku egokiena, Uruburu etxea dela adierazi dute teknikariek. Hori dela eta, Uruburu bizilagunen ordezkariak eta telekomunikazio teknikariek bilera izan zuten martitzenean.

Errepikagailuak ez du kalterik eragiten osasunean eta ikusmenarako, teilatuetako telebista antenen parekoa da. Hala eman zieten jakitera Zaiazko telekomunikazioko teknikariek Uruburu bizilagunen ordezkariak.

Hurrengo urratsa, Uruburu bizilagunen oniritzia jaso, eta errepikagailua bertan kokatzea izango da. Bi metro inguru eta bi plaka dituen errepikagailua jartzeko, hamar bat egun beharko dituzte. Teknikariek, GOITB telebistako zein kanaletan ikusiko den ere erabakiko dute.

EZ DU KALTERIK ERAGITEN

Zaiazko telekomunikazioko teknikaria den Luis Azkondok adierazi digunez, GOITBko seinalea herriko etxe guztietara heltzeko



ARTXIBOA

Martitzeneko batzarrean Uruburu bizilagunen ordezkariak ez zuten arazorik ikusi seinale zabaltzailea Uruburun kokatzeko.

errepikagailua jartzeko eraikin egokiena Uruburu etxea da.

Errepikagailuak ez duela inongo kalterik eragingo aurreratu digu, "bisualki ez du kalte-

rik eragingo, Uruburu etxeak nahiko altuera handia dauka eta metro pare bateko tutuekin nahikoa izango da. Osasunari ere ezin kalterik egin eta behar diren neu-

rri guztiak hartuko ditugu. Errepikagailuak, seinalea hartu eta beste antenetara zabaldu besterik ez du egiten eta, gainera potentzia baxuan".

HERRITARREN HITZA / Beatriz Zabalondo • Itzultzailea

Andereño Maria Pilar

Gure lehenengo andereñoa izan zen Andereño Maria Pilar, Maala zaharrean. Atean hartzen gintuen goizero herriko ume gehienok, nik uste, eta goiko ganbaran ematen genituen goiz-arratsaldeak. Haren ahots gozoa, hizkera dotorea eta aurpegiera zorrotza geratu zaizkit memorian, eta eskola orduak zoriontsu igarotako bizipena.

Joan zen astean, Jose Mari Iriondok telebistan duen elkarrizketa saioan, Elgetan andereño izandako bat aurkeztu zuenean, denak utzi eta adierazi eseri nintzen andereño hura ezagutzeko. Eta sekulako

aurkikuntza izan zen. Ahots ezia, Leitzako berbeta eder garbi sendoa aditu nizkion. Jakin-min handiko pertsona izan dela beti esan zuen, eta horrek lana eta ikasketak uztartzera eraman zuen, "botikarioek eta bezala, lizentziatura bat eskuratu ahal izateko". Berrogei urterekin lizentziatua zen Hispanicas-en. Batzuen zat, gaur ere nahikoa zaila bada lana eta lizentziatura



"Emakume jakintsua, argia eta apala aurkitu dut telebistan"

ikasketak uztartzea; ez dut pentsatu ere egin nahi, garai hartako emakumeak zein kemenek bultzatu zuen lan horiek hartzera.

1968az gero Euskaltzaindian idazkari lanetan jardun du 32 urtean, eta euskaltzain urgazle ere bada. Urte haietan "txindurri-lana" egin zuela zioen,

beste batzuk iaioagoak eta jantziagoak ba omen zirelako. Nago, gizon jakintsu horiek ere

Maria Pilarri esker egingo zutela hein handi batean egin zituzten lan burutsu asko.

Harrigarriena bizitzaren aurreko bere jarrera iruditu zait: gauza guztiei, pertsona guztiei irizten die interesgarri; denerako du pentsamolde positiboa. Inbidia emateko moduko alaitasuna eta bizipoza zerizkion.

Emakume jakintsua, argia, apala, maitagarria eta beso zabala aurkitu dut telebistako saioan. Orain ulertu dut zergatik neukan gordeta ikasle guzti-guztiekin justua izandako andereñoaren oroimena. Gutxi bezala.

GOITB etxe guztietara bidaliko duen errepikagailua kokatzeko, Uruburu da leku aproposena

Errepikagailua telebista antenen oso antzekoa da eta ez da arriskutsua osasunarentzat

Bizilagunen ordezkariak ez zuten arazorik ikusi errepikagailua Uruburun kokatzeko

LABUR

Domekan, Zuhaitz Eguna izango da Eguarbitzan

Etzirako, martxoak 3, Baserriarren Batzordeak eta Maya Ingurugiro taldeak Zuhaitz Eguna antolatuko dute.

Goizeko 09:00etan plaza-tik irten eta Egoarbitzara joango dira zuhaitzak landatzera. Aurtengoan landatuko dituzten zuhaitzak, zumarrak, urkiak, gereziandoak eta lizarrak izango dira.

Antolatzaileek esan digutenez, komeniko litzateke daukanak, aitzurra eramatea. Hamarretakoa aldiz antolatzaileen esku geratzen da.

Elizako tximistorratzak kalteak mugatu zituen


OXEL EROSTARBE

Eguazten goizean, elizako tximistorratzaren mantentze lanez arduratzen ziren teknikariak etorri ziren. Urtero berri-kusi ez duten arren, otsailaren 14an, behar bezala ibili zen tximistorratza. Hori ziurtatu zuen Satur Padillak, tximistorratzen teknikariak.

Satur Padilla teknikariak duela ia hamar urte, 1993an, hain justu, jarri zuen elizako kanpandorrean dagoen tximistorratza.

Egokiena da tximistorratza urtero berrikustea, baina elizakoan ez dute hori urtero egin. Hala ere, otsailaren 14an, kanpandorreko tximistorratza ondo ibili zen, tximistaren indarra Artekalen dagoen lurrerako hartu-netik behera zabaldu zen-eta. Satur Padillak esan zigunez, tximista handia denean, tximistorratzari kostatu egiten zaio energia guztia xurgatzea eta inbutu erako uhin bat sortzen da: "Elgetan kalteak eragin zituen uhina izan zen, tximistak tximistorratza jotzean energia gehiena horrek xurgatu zuen. Tximista oso handia izan zenez, tximistorratzaren inguruan uhin bat sortu zen, inbutu estu bat likidoz betetzen dugunean guztia xurgatzea kostatzen zaionean bezala. Uhin horrek askatutako energiak erre zituen telefonoak, etxetresna elektrikoak, kaleko argiteria..."

Eraikin zaharretako instalazio elektriko gehienek ez dute lurrerako hartunerik. Satur Padillaren esanetan, horrek eragin zuen kalteak handiagoak izatea: "Sare elektrikoan behar dena baino energi gehiago dagoenean, hori lurrerako hartu-netik askatzen da. Aurrekoan energia gehiegi pilatu zen sare elektrikoan. Lurrerako hartune egokirik ez zegoen eraikinetan energia hori antena, etxetresna elektriko, telefono, eta abarretatik askatu zen, eta aparailuak erre zituen". Etxebizitza berrietan lurrerako hartuneak jartzea derrigortzen du legeak. Lurrerako hartunea zelanda jakiteko, etxebizitza zaharretako bizilagunei argiketaria-



Satur Padillarekin batera tximistorratza ikustera ginen kanpandorrera.

Lurrerako hartune egokirik ez duten etxebizitzetan kalteak handiagoak izan dira

ri deitzeko gomendioa egin die teknikariak. "Etxebizitzak etxetresna elektriko berrienekin edukitzea atsegin dugu guztiok. Behar den moduko sare elektrikoak izateak ez da oso garestia eta horrelakoak gertatzen direnean kalteak izatea eragozten du".

TXIMISTORRATZ BARIK KANPANDORREA BEHERA ERORIKO LITZATEKE

Tximistorratzak 150 metroko inguruan eroriko litzatekeen tximista erakartzen du beregana.

Tximistorratz barik kalteak handiagoak izango lirateke, kanpandorrea guztiz txikituz

Herrian tximistorratzik ez balego, edozein etxebizitzatan tximista erortzeko arriskua egongo litzateke. Pertsonak ere ez ginateke salbu egongo. Horrez gain, tximistak kanpandorrean jotzeko aukerak ere asko dira. Horrek energia uhin bat sortuko luke eta kalteak etxebizitzetan tximistorratzarekin baino handiagoak izango lirateke. Tximistorratz barik, kanpandorrearen zati bat guztiz txikituta geratzeko aukerak ere handiak izango lirateke.

LABUR

Sagarroi taldeak 'Meatzaldea' bere aurreneko lana aurkeztuko du gaztetxean

Gaur, martxoak 1, gaueko hamaiketatik aurrera Sagarroi eta Eten taldeek kontzertua emango dute gaztetxean.

Sagarroi taldeak *Meatzaldea* bere lehen diskoa aurkeztuko du. Inigo Muguruzak hirukote berria osatu du *hardcore* eta *power pop* doinuak batzen dituen diskoa kaleratzeko. Gaztetxearen seigarren urteurrenaren barruan antolatu dute kontzertua.

Datorren astean, Medicus Mundiren erakusketa izango da kultura etxean

Miguel San Sebastian sendagile gipuzkoarrak Ekuadorko Amazonaseko herrixketan petrolio ustiaketaren ondorioak ikertzeko egindako ikerketaren inguruko erakusketa izango da datorren astean. Ekuadorren bertan Manuel Charlon argazkilariak ateratako erretratuak ikusteko aukera izango da hilaren 8an, 9an eta 10ean.

Elgetako mapa toponimikoa egitea 13.823 euro kostatuko da

Elgetako baserrien, auzoen eta tokien izenak batuko dituen mapa toponimikoa egitea erabaki du Kultura batzordeak. Mapa hori egiteak 13.823 euroko aurrekontua izango du (2.300.000 pezeta). Eusko Jaurlaritzak ordainduko du aurrekontuaren zati handiena: 9.141 euro (1.521.000 pezeta). Gainerakoa Udalaren esku geratuko da.



Iraitz Lazkano kung fu txapelkun

Joan den domekan Tolosako Berazubi kiroldegian jokatutako Gipuzkoako Kung Fu Txapelketan emaitza ezin hobea lortu zuen Iraitz Lazkanok. *Nang-Chuang* eta *Chang-Chuang* modalitateetako Gipuzkoako txapelkun izatea lortu zuen, urrezko eta zilarrezko dominak lortuta. Elgetarra Euskadiko Kung Fu Txapelketan parte hartzeko sailkatu da./O.E.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Elgeta-Piel

Neguko denboraldi berria

Astelehenetik barikura:
17:00-20:00
Zapatuak:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA
943 76 81 12

GOIO SARASUA

Igeltserotza lanak

Teilatuak
Sukaldeak
Etxaurreak
Komunak

Otzango Behakoa Baserria
OIKINA
Tel: 943 86 01 56

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26
ELGETA
Tel: 768190

ERRETRATU ZAHARRA

Bosgarren
mailako
ikasleak, 1987

Oraingo asteen, 1987an bosgarren ikasturtean ari ziren Herri Ikastetxeko ikasleen argazkia dakarkizuegu. Hor ditugu 1976an jaiotako antzuolarrak euren irakasle Anastasirekin.

Herri Eskolaren aurrealdean aterata dago argazkia. Atzean, frontoi pareko etxeak ikus daitezke.

Argazkia oso antzinakoa ez den arren (duela 15 urtekoa da), garbi ikus daiteke asko aldatu direla bai ikasleak, eta baita janzteko erak eta itxura ere.

Lehenengo ilaran, Haritz Irizar eta Haritz Zuloaga daude, makurtuta.

Lehenengo ilaran, jarrita, honakokak daude: Andoitz Aranburu, Xabier Barkero, Ander Lezeta, Nerea Arregi, Ines Maria Caceres, Rakel Martin, Saioa Arrieta, Monika Moreno, Amagoia Azkarate, Harri Arin eta Aritz Berraondo.

Bigarren ilaran: Anastasi Gabi-londo irakaslea, Iñaki Narbaiza, Esther Coma, Saioa Rodriguez, Mari Carmen Taboada, Idoia Pozo, David



Deogracias, Igor Larrea eta Patxi Sansebastian.

Azkeneko ilaran, goian: Beñat Aiastui, Gorka Manso, Aitor Larrea, Iban Luna, Arkaitz Kortabarria eta Zigor Perez.

Argazkia: Haritz Irizar

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK


Danok Bat
elkartea eta
Telleria

Tellerianeko zurrategia izandakoa zen gero Danok Bat elkartearen egondako eraikina. Gerra garaian eta gerra ostean oso ospetsua izan zen zurrategi hori; izan ere, armadarendako poltsak, kartutxo-zorroak eta horrelakoak egiten zituzten.

1960ko hamarkadan, berriz, Danok Bat elkarte jarri zuten hantxe, Cesareo Gabarain apaiz ezagunak bultzatuta.



1997 Eraikina bota baino hiru urte lehenagokoa dugu honako argazkia. 2000ko apirilean bota zuten. Beheko solairuan zegoen Danok Bat elkartearen.



2002 2000n botata, eraikina zegoen tokia hutsik dago gaur egun. Aurrera begira, baina, toki horretan parkea egiteko asmoa du Udalak.




Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbaliarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago *aseguratuta*
lasai-lasai errepidean




Problemarikgabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zure



Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



b o b i n a j e
ALZAS
e l e k t r i k o a k

MOTORE ELEKTRIKOAK
ABIADA HANDIKO INDUZITUEN KONPONKETA

Antigua auzoa 3. ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 14. Faxe: 943 76 62 99

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

